



# GUZNERA BAXERA

HURBILKETA BAT  
2030 AGENDATIK  
EUSKADIKO TALDE  
KALTETUETARA



UNESCO ETXEA

CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO  
EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA

**Koordinazioa eta idazketa:** Nekane Viota eta Eva Quiroga (UNESCO Etxea)

"Todas Juntas-Guztiok Batera" lantaldearen bidez, honako hauek hartu dute parte txostenean: Tamara Clavería, Josune Rebollo eta Mari Mar Clavería (AMUGE), Maialen Olabe, Aihnoa Gomez eta Ainhoa Azkarate (EGK), Auxtin Ortiz eta Juan Carlos Hernández (ENDAA), Joana Vitorica eta Agnès Morilhat (FRM), Francy Fonseca eta Clementine Pouatou (Emakumeak Aniztasunean) eta Jokin Esnaola, Maitane Arzalluz eta Mikel López (GEHITU).

Eskerrak eman nahi dizkiegu txostenari egindako ekarpenagatik, 2021eko maiatzaren 25ean egin zen eragile anitzeko foroan parte hartu zutelako, honako erakunde eta pertsona hauei:

BBK Kuna | Altekio | World Rural Forum | Asociación AMUGE | Gehitu Elkarte | Euskadiko Gazteriaren Kontseilua EGK | Emakumeak Aniztasunean | UNICEF Euskal Herriko Batzordea | Alokklub | IBILKI | GizARTE Sarea | Euskal Fundazioa | Misoak – Misiones Diocesanas Vascas | Retinosis Retina Begisare | Amesten Elkarte | Talent Gune | Mujeres Tejiendo Red | Pello Sarasua

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Maider Marañari (Baketik) txostenerako idatzitako kapituluagatik: Noren ardura da eskubide horiek errealitate bihurtzea?

Gida honetan adierazitako iritziak ez datoz nahitaez bat berau egiten parte hartu duten pertsonen eta erakundeen iritziekin.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantziazioari esker egin ahal izan da azterlana.


**Itzulpena:** Bakun S.L.


**Maketazioa:** Binari Comunicación S.L.L.

**Inprimategia:** Imprenta Garcinuño

**Lege gordailua:** BI01469-2021

**Hartu-emanetarako:** [info@unescoetxea.org](mailto:info@unescoetxea.org)







HITZAURREA	6
SARRERA	8
ERALDAKETARAKO 2030 AGENDA, ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK	10
GIZARTEKO TALDEAK, IKUSPEGI INTERSEKZIONALETIK	12
AGENDAREN ERRONKAK	14
NOR UZTEN ARI DA ATZEAN EUSKADIN?	16
NOREN ARDURA DA ESKUBIDE HORIEK ERREALITATE BIHURTZEA?	18
AZTERTUTAKO KASUAK	25
AMUGE, EMAKUME IJITOAK	26
EGK, GAZTEAK	30
MUNDUKO LANDAGUNEA ETA ENDAA, JORNALARIAK	34
EMAKUMEAK ANIZTASUNEAN, EMAKUME MIGRATUAK	40
GEHITU, LGTBI+ KOMUNITATEA	46
AZTERLANAREN EMAITZAK	51
PERTSONEN ETA PLANETAREN ARTEKO HARREMANA	52
DESBERDINTASUNAK. BEGIRADA BAT INTERSEKZIONALITATEAREN ETA ANIZTASUNAREN IKUSPEGIETATIK	53
GENERO BERDINTASUNA	54
KALITATEZKO HEZKUNTZA	55
ENPLEGUA ETA ETXEBIZITZA: PREMIEI ERANTZUTEKO FUNTSEZKO FAKTOREAK	57
OSASUNA ETA DESBERDINTASUNAK: COVID-19 KRISIA ARRISKU FAKTORE ERANTSI GISA	59
GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK	60
2030 AGENDA EZARTZEKO ERRONKAK, KALTETUTAKO TALDEEN IKUSPEGITIK	61
ONDORIO OROKORRAK	62
AZKEN PROPOSAMENAK	66
ERREFERENTZIAK	70
ERANSKINAK	
I. ERANSKINA: ELKARRIZKETEN GIDOIA	72
II. ERANSKINA: BIZITZA-HISTORIEN GIDOIA	74

# HITZAURREA

UNESCO Etxea Nazio Batuen eta UNESCOren printzipioekin konprometituta gauden pertsonen eta erakundeen elkarte bat da. Jarrera indibidual eta kolektiboak sortu nahi ditugu, euskal gizarteak giza eskubideen balioak bere egin ditzaneta, horrela, parte har dezan herrien garapen iraunorrerako munduak duen erronkan.

Hain zuzen ere, UNESCO Etxea erakunde euskalduna ari da, 2011tik, 2030 Agendaren eraikuntzan lanean, eta, Agenda 2015ean onartu zenetik, horren aldeko apustua egin dugu giza eskubideen defentsarako eta lorpenerako tresna gisa, Euskadin eta nazioartean.

Agendaren beraren adierazpenean, 2015. urtean, aditzera eman zen zein den Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuen eta 169 xedeen asmoa: pertsona guztien giza eskubideak egia bihurtu daitezela lortzea, bai eta generoen arteko berdintasuna eta emakume nahiz nesken ahalduntzea ere.

Hori dela eta, UNESCO Etxetik, bultzatu egiten ditugu erakunde publikoak, pribatuak, sozialak eta euskal herritarrak, 2030 Agendaren eraikuntzan, garapenean eta ebaluazioan aktiboki parte hartzea, giza eskubideen ikuspuntua gaineratuz. Izan ere, agenda eraldatzailea izan dadin, kontuan hartu beharko dirakolektibo bakoitzaren errealitatea, beharrak eta berezitasunak, bai Euskadin bai munduko edozein tokitan.

Horretan tinko sinetsita, 2019an Todas Juntas - Guztiok Batera lantaldea jarri genuen martxan. Izan ere, ikusten genuen erakunde publikoek eta gizarte-eragileek gero eta gehiago ezagutzen eta barneratzen zutela 2030 Agenda, baina, hala ere, oraindik ere bide luzea egin beharra zegoela pertsona guztien eskubideak erdiguneari jartzea lortzeko eta, bereziki, talde kaltetuen eskubideak.

Lehenengo fase honetan, honako hauek ari gara Todas Juntas - Guztiok Batera taldean lanean: UNESCO Etxea, AMUGE, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Munduko Lantagunea, Emakumeak Aniztasunean eta GEHITU. Sakontze - lana, prestakuntza - lana

eta hausnarketa - lana elkarrekin eginez, Todas Juntas - Guztiok Batera taldeak identifikatu egin nahi du zein diren Euskadiko talde kaltetuak, eskubideak urratuak dituztenak, eta hala, sakonki ezagutu eta indartu egin nahi ditu talde horiek, subjektu politiko bihur daitezzen, haien ahotsak entzunakizateko eta euskal gizarteak nahizgizarte - eragile guztiok ahots horiek geure prozesuetan sartzeko; hala, egia bihurtuko dugu "inor atzean utzi gabe" leloa.

Talde eragilearen jarduera esanguratsuenetako bat txosten hau egitea izan da: "Guztiok batera. Hurbilketa bat 2030 Agendatik EAEko kolektibo kaltetuetara".

Honako galdera hau egiten diogu geure buruari: Euskadin zein "ari da atzean gelditzen" edo, hobeto esanda, "Euskadin zein ari gara atzean uzten"? Galdera horri erantzutea oso konplexua da; izan ere, gure ustez, talde sozial horiek heterogeneoak dira, askotarikoak, eta, gainera, denborarekin aldatuz joan daitezke.

Txosten honetan zehar, ikusiko dugu nola ulertzen duten kolektibo parte - hartzaile nagusiek 2030 Agenda hau gidatzat, norabide berean lan egin ahal izateko. Alde horretatik, aldarrikatzen da pribilegioetatik pentsatu gabeko tresna bat behar dela. Parte - hartzaileek proposatzen digute etengabe berrikusi behar dugulazer arrakala ari dirensortzen gizartean, arrakala horien ondorioz pertsona guztiok ez baititugu aukera berak garapen iraukorran parte hartzeko.

Txosten honek, ikuspegi kritiko eta propositibo batetik, lagundu egin nahi du 2030 Agenda diseinatzan, ezartzen eta baloratzen, benetan eraldatzailea izan dadin; hau da, kolektibo kaltetuen errealitatea ardaztat hartuta, pertsonak erdigunean jartzen lagundu dezan.

UNESCO Etxeak eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten bost eragileei beren konpromisoa, partaidetza eta ikuspuntua eskaintzeagatik. Era berean, eskerrak eman nahi dizkie beren historiaren bitartez Euskadiko kolektibo kaltetuen errealitateari aurpegia jartzen eta haien testigantza ematen lagundu duten bost pertsonei ere.

**Arantza Acha de la Presa**, UNESCO Etxea - Euskal Herriko UNESCO zentroko zuzendaria

# SARRERA

Garapen Iraunorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorreko 17 Helburuak (GJH) nazioarteko komunitatearen erronka berri bat dira pobrezia errotik kentzeko, giza eskubideen eskuragarritasuna zabaltzeko, genero desberdintasunen eta bestelako (ekonomikoak, sozialak...) aurka borrokatzeko eta planetarekiko eta eskaintzen dituen baliabideekiko errespetuzko garapena lortzeko. 2030 Agenda gero eta gehiago eza gutzen eta bereganatzen dute erakundeek eta gizarte eragileek, batez ere erakunde publikoek eta enpresek, baina oraindik bide luzea dago 2030 Agendak duen "pertsona guztiak erdigunean jartzeko" konpromisoa gauzatzeko, erakundeen diskurtsoek eta gobernu planek oraindik ere ez baitituzte erdigunean jartzen egoera ahulean dauden taldeak, eta arreta eta baliabide bereziak jarri beharko litzaizkieke horiei.



Testuinguru horretan sortu zen **"Todas Juntas - Guztiok Batera"** proiektua, UNESCO Etxeak sustatua, **AMUGerekin (Euskadiko Emakume Ijitoen Elkartea), Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin (EGK), Munduko Landagunearekin (ML), Emakumeak Aniztasunean eta GEHITU (Euskadiko Gai, lesbiana, Trans, Bisexual eta Intersexualen Elkartea) elkarteekin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin** elkarlanean. Proiektu honen bidez, Euskadiko talde kaltetuak (eskubideak urratuak dituztenak) identifikatu, sakonki ezagutu eta indartu nahi ditugu, subjektu politiko aktiboak diren aldetik, haien ahotsak entzun daitezten eta euskal gizartean, eta, bereziki, erabakiak hartzen dituztenengan presioa egiteko, beren konpromisoak bete ditzaten. Era berean, proiektu hau sortu da sektorearteko ikuspegitik abiatuta garapen iraunkorreko agenda eraldatzailea abian jartzeko asmoz, bai tokiko dimentsioan, bai eragin globalean.

Gure helburuak betetzeko, ikerketa kualitatibo bat planteatu dugu, ikerketa teorikoan eta praktikoan oinarritua, bost azterketa kasu espezifikoren bidez. Kasu horietan, Euskadiko 5 talde edo kolektibo zehatzetan sakonduko dugu: LGTB+ komunitatea, emakume ijitoak, emakume migratuak, gazteria eta jornalariak. Arestian aipatutako erakundeek ordezkatzeko dituzte talde horiek, eta esparru proiektuaren talde eragilean parte hartzen dute.





Euskal Autonomia Erkidegoan dauden taldeen eta kolektiboen aniztasuna aintzat hartuta, proiektuaren helburuak lantzeko eta lortzeko garrantzitsuak diren zenbait irizpidetan oinarritu da taldea eraikitzeko prozesua: emakumeek osatutako taldeak egotea, Garapen Iraunorrerako 2030 Agendaren arloan alde aurreko ezagutza edo lana duten erakundeak, geografikoki hiru euskal lurraldeetan kokatuak, eta, oro har, taldeak hainbat aniztasun islatzea, hala nola afektibo-sexuala eta/edo belaunaldien artekoa, kulturala eta abar.

Azkenik, azpimarratu behar da aztertutako 5 kasuak ikertzeko prozesua amaitzean egin dela **“Todas Juntas - Guztiok Batera”** **Eragile anitzeko I. Jardunaldi Birtuala: Hurbilketa bat 2030 Agendatik Euskadiko kolektibo kaltetuetara**. Horrela, ikerketaren ildo nagusiei buruz hitz egin eta hausnartu ahal izan da, ikuspegi eta begirada berriak sartzeko, proposamen politikoak eta ekintza proposamenak egiteko, eta “Guztiok batera” proiektutik egiten ari garen lanari jarraipena emateko, UNICEF Euskal Herriko Batzordea, Amesten Elkarteak, Koop SF 34 eta Oscarte lantaldean sartzeko interesa agertu duten erakunde eta gizarte talde berrietatik.



Guztiok Batera taldearen lehen lan-bilera, 2020ko martxoaren 3an

## EZTABAIDA TERMINOLOGIKOA

Garrantzitsua iruditzen zaigu “Todas Juntas - Guztiok Batera” taldearen barruan terminologiari dagokionez egindako kontrasteen berri ematea irakurleei. “Egoera ahulean dauden kolektiboak” kontzeptutik abiatu ginen, inguruko gorabeherek eta egoerek berek sortzen baitute ahulezia (esparru teorikoan aztertuko den bezala), eta, ondoren, “kolektibo kaltetuak” kontzeptuari buruz eztabaidatu zen, kolektibo horietako pertsonen eskubideak urratzen direla ulertuta. Nagusiki bigarrena nahiago izaten da pertsonak eskubideen subjektu gisa zuzenean aipatzen direnean. Horregatik, egoera ahulez edo pertsona/talde kaltetuez hitz egiten da.

Era berean, gizarteko “kolektiboez” hitz egiteko ideiarekin hasi zen, eta, azkenik, ondorioztatu zen zenbait kasutan ez garela kolektiboez ari, herriez edo komunitateez baizik. Beraz, “talde” sozialak edo gizarteko taldeak termino generikoa erabiltzen dugu kasu guztiak aipatzeko.

# ERALDAKETARAKO 2030 AGENDA, ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK

Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendak Garapen Iraunkorreko 17 Helburu (GJH) planteatzen ditu, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren "Gure mundua eraldatzea: Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda" Garapenerako goi bileraren azken adierazpenean jasotakoak, eta **planetako herrialde guztiak interpelatzen ditu, edozein dela ere haien egoera ekonomikoa eta garapeneko**. Izan ere, funtsezko ezaugarrietako bat da onartzea arazoak munduko leku guztietan gertatzen direla, eta, gainera, herrialde batzuetako bizi estilo jasangaitzek beste batzuen gizarte, ingurumen eta ekonomia kontuetan eragiten dutela.

Agenda zabala da, elkarri lotutako gaiak biltzen dituena eta konplexua, eta ekintza kolektibo zabalak, elkarri lotuak eta konplexuak, eskatzen ditu. Horregatik, **eragile tradizionalen eta ez-tradizionalen artean aliantzak egitea espero da**, barne hartuta maila guztietako gobernuak (estatukoak, azpiestatukoak eta tokikoak), gizarte zibila, mundu akademikoa, sektore pribatua, sindikatuak eta Nazio Batuen sistema.

Agenda eta Garapen Iraunkorreko Helburuak eraikitzeko prozesuan, bai gizarte zibila, bai Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren aditu taldeak azpimarratu zuten **Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren erdian egon beharko luketela giza eskubideek**, eta giza eskubideen berezko integritasuna, unibertsaltasuna, zatiezintasuna eta elkarrekiko lotura oinarri hartuta heldu beharko litzaiekeela helburuei. Bestela esanda, pentsatu zen giza eskubideen nazioarteko esparruan egon behar zutela GJHek. Agendaren hitzaurrean bertan hauxe jaso da: *"pertsona guztien giza eskubideak errealitate bihurtu nahi dira"*. Era berean, 8. paragrafoan, etorkizunerako ikuspegi bat planteatzen du, herrialdeen artean eta herrialde horien barruan *"mundu unibertsalago bat lortzeko herrialdeen artean eta herrialdeen barruan giza eskubideak eta pertsonen duintasuna, zuzenbidezko estatua, justizia, berdintasuna eta diskriminaziorik eza errespetatzearen alde"*, genero berdintasuna ere barnean hartuta.

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak (ACNUDH) uste du ahalegin handiak egin direla Agendan giza eskubideen esparruan. Hala ere, bide konplexua izan da giza eskubideak 2030 Agendan sartzea, eta hainbat fasetan egin da,



zenbait estatu uzkur agertu baitziren giza eskubideen hizkuntza erabiltzeari dagokionez (UNESCO Etxea, 2019).

Hala ere, uste da datozen urteetan Garapen Helburuak bereziki garrantzitsuak izango direla giza eskubideen agendarako, eta giza eskubideen arloko nazioarteko itunek baino eragin handiagoa izango dutela politika publikoetan. Era berean, bi norabideko harreman horretan, agerian geratu da giza eskubideekin duen konpromisoaren baitan dagoela neurri handi batean Agenda 2030 benetan ezartzea. Hau da, elkarri lotuta daude eta elkar indartzen dute, **Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsaletik nazioarteko esparru juridiko bat eskainiz, eta 2030 Agendatik eta GJHetatik giza garapen iraunkorrerako eta** gizarte inklusiboago, ekitatiboago eta iraunkorragoetara **eraldatzeko ekintza plan bat.**

Hain zuzen ere, pertsonak eta planeta eraldatzeko tresna izan nahi du 2030 Agendak, bai eta giza garapen iraunkorraren aldeko funtsezko pieza ere. Alde horretatik, herrialde guztiek maila anitzeko eskalan parte hartzea ezinbestekoa da horiek ezartzeko eta ondoren jarraipena egiteko. Agenda 2030 ezartzea hein handi batean gobernuen erantzukizuna bada ere, **herritar kritikoek eta konprometituen inplikazioa, errealitate sozialen, kulturalen, ingurumenekoek eta ekonomikoek jakitun direnak, bereziki lagungarria da Garapen Iraunkorreko Helburuak betetzeko.**

Gizarte Zibil Antolatuen eginkizuna funtsezkoa da gizarteak benetan eraldatzeko eta pertsona guztiak erdigunean jartzeko. Hau da, 2030 Agendak aukera ematen du pertsonen eskubideak eta planetaren zaintza ekintza politikoaren erdigunean jartzeko; bertan, Gizarte Zibil Antolatuak ekarpena egin behar du gizartearekiko ikuspegian, ezagutzan eta loturan, bereziki, eragin handiena duten taldeekin. Izan ere, GJH guztiek dituzte helburu espezifikoak, gizarte zibileko erakundeek erreferentzia egiten dietenak, gizarte zibilak helburuak modu pragmatikoagoan bideratu baititzake, Agenda tokiko ekintzara hurbilduz (Futuro en Común, 2019).

Eragileen arteko lankidetzak hori lortzeko, Agendak dio **mekanismo tradizionalak parte hartzeko mekanismo berriekin osatu behar direla, pertsona guztien ahotsa entzun ahal izateko** (UNESCO Etxea, 2019). Horrela, lan komunitarioaren bidez soilik lortuko da eraldaketa, komunitatearen alde eta komunitatearentzat, gizarte zibilaren, enpresen eta erakundeen, administrazio publikoen, hirugarren sektorearen eta abarren arteko aliantzak sortuz. *"Parte hartzen duten herrialde eta interes talde guztiek ezarriko dute plan hori, elkarlaneko elkarte gisa jardunez"*, 2030 Agendaren hitzaurrean jaso da zeinen garrantzitsua den ezartze, jarraipen eta berrikuspen ahaleginetan interes taldeak sartzea.



# GIZARTEKO TALDEAK, IKUSPEGI INTERSEKZIONALETIK

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasota dago pertsona guztiok aske eta berdin jaiotzen garela duintasunari eta eskubideei dagokienez. Hala ere, **munduko leku guztietan milioika pertsonak diskriminazioa jasaten dute** adinagatik, sexuagatik, ezgaitasunagatik, etniagatik, jatorriagatik, erlijioagatik, egoera ekonomikoagatik edo bestelako baldintza batzuegatik. Diskriminazio horiek **desberdintasunaren fenomenoan** dute beren testuingurua. Fenomeno horrek ere hainbat adierazpide ditu: desberdintasuna dago aberastasunaren banaketan, aukera desberdintasuna, baliabideak eskuratzeko desberdintasuna, dimentsio anitzeko pobrezia, eten digitala, energia desberdintasuna... eta planetako pertsona askori eragiten dieten forma ugari, haien eskubideak urratuz.

Era berean, baliabide gabezia dakar ahultasun sozial horrek, eta horrek babesgabetasun materiala, emozionala eta erlazionala ekar dezake, desberdintasun mota desberdinen eta haien arteko elkarreaginaren ondorioz: egoera ekonomikoa, lan baldintzak, migrazioak, generoa, etnia, sexu aniztasuna, aniztasun funtzionala... Hau da, **pertsonen oinarrizko eskubideak ez aitortzea dakar desberdintasunak bere forma guztietan.**

Hala ere, desberdintasun horien jatorria ez dago gizabanakoan, ez eta haren berezko ezaugarrietan ere, desberdintasun horiek sortzen dituen sistemaren egituran baizik. Estaturen eta merkatuen egitura errotuta dauden bidegabekerietatik sortzen dira diskriminazioak, nahitaez bistakoak ez diren arau, aurreiritzi eta estereotipoen bidez (Barrère eta Morondo, 2011).

Horregatik, diskriminazioa sozialki eraikitzen da, eta balioen, ideien, sinesmenen eta praktiken sistema baten inguruan gertatzen da. Era berean, testuinguru sozialaren konplexutasunak pertsonen portaerak sinplifikatzera eta haien taldeen ideiekin bat egitera garamatza, gainerakoak baztertuz (Oswald, 2020). Prozesu hori inkontzientea da eta **bidea zailtzen die ezarritako arubidea ez bestelako norabidea hartzea erabakitzen dutenei, pertsona horiekiko aurreiritziak eta estereotipoak sortuz.**

Jokabide diskriminatzaile guztiek, taldekoek, indibidualek eta sistemikoek, indartu egiten dute ahulezia soziala. Eta horrek berekin darama arrisku sozialen eta naturalen eraginpean egotea, eta arrisku horiek **eragin negatiboa izan dezakete hainbat alderdi**



**materialetan eta ez-materialetan, diru sarrera ekonomikoekin hasi eta osasun, hezkuntza edo gizarte zerbitzuetara sarbidea izatearekin buka** (Busso, 2002).

Hala, printzipioak "inor atzean ez uztea" eta "pertsonek erdigunean jartzea" badira, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren leloak biak ere, **talde sozialen ulermen zabal, dimentsio anitzeko eta sektoreartekotik egin behar dugu lan, talde horiek konplexuak eta dinamikoak baitira.**

Interseksionalitatea 1980ko hamarkadan definitu zen Estatu Batuetan arrazaren eta generoaren arteko interakzioa islatzeko, eta honela definitzen da: *"identitate anitzen eta bazterkeria eta mendekotasun esperientzien interakzioa"* (NBE Emakumeak, 2018). Hau da, gure ustez, kategoria sozialak, eraikiak izateaz gain, elkarrekin lotuta eta gainjarrita daude, eta diskriminazio arriskua areagotu dezakete.

Interseksionalitate ikuspegiak boterea sakon aztertzea eskatzen du, pertsona batek gizarteko talde jakin bateko kide izan behar duelako ustea baztertuz. Ikuspegi hori beharrezkoa da zapalkuntza eta diskriminazio sistemen arteko interakzioa ulertzeko azterketa tresna gisa (AMUGE elkarteak, 2021).

Era berean, **sistemaren elkarguneak berak eragiten du diskriminazioak jasan eta ahulezia egoerak bizi dituzten taldeak homogeneoak eta estankokoak ez izatea.** Baina, aldi berean, horrek ez du esan nahi ahulezia horiek eragiten dituzten kategoria sozialak desagertzen direnik, eta, ondorioz, talde kaltetu ugari sortzen dira, eta talde nortasun politikoa galtzen dute banakotasunean murgiltzeko (Barrère eta Morondo, 2011).

Era berean, sektorearteko begiradak aukera ematen digu pertsonen eta taldeen egoera dinamika sozial zabalago baten parte gisa ulertzeko. Ildo horretatik, gogoan dugu Urie Bronfenbrenner-en giza garapenaren ekologia (1987); giza garapenaren ikerketan eta pertsonen eta ingurunearen arteko elkarreaginean ekarpen esanguratsua egiten duena. Portaerak eta harremanak ulertzeko, eta, beraz, jokabide diskriminatzaile eta desberdintasun egoera horiek ulertzeko, beharrezkoa da inguruneak eta inguratzen gaituzten ingurumen sistemek duten eginkizuna ezagutzea, hala nola **mikrosistemak** (hurbileko ingurunea), **mesosistemak** (mikroen arteko erlazioa) edo **makrosistemak** (kultura eta azpikulturak), besteak beste. Hain zuzen, autoreak dio ingurune sistemak hautemateko modua eta haiekin harremanak izateko modua aldatzea dela garapena.

*"Adierazpen genetikoa testuinguru epigenetikoaren araberkoa den bezala, ingurune ekologikoaren ezaugarriek eta ondasun immaterial eta fisikoetarako sarbideak eta gozamenak baldintzatzen dute adierazpen intelektuala. Izan ere, giza eskubideak banaezinak badira, badago eskubide goren bat, bizitzeko eskubidea, hori ezinbesteko baldintza baita beste edozein eskubide baliatzeko"* (Federico Mayor Zaragoza, 2011).

Azken batean, ahulezia eta zaurgarritasun egoeren konplexutasuna eta aldaerak kontuan hartuta, esan dezakegu egoera hori dinamikoa eta dimentsio anitzekoa dela, hainbat pertsonari eta talderi eragiten baitie, hainbat modutan eta hainbat intentsitatetan (Busso, 2002).



# AGENDAREN ERRONKAK



**2020an hasi zen 2030erako Garapen Iraunkorreko Helburuak betetzeko Ekintza Hamarkada.** Hori dela eta, datozen 10 urteak bereziki garrantzitsuak dira munduko erronken erantzunak bizkortzeko, hala nola, pobrezia ezabatzea, generoen arteko egiazko ekitatea lortzea edo klima aldaketaren ondorioak leheneratzea.

2020an aurrekaririk gabeko nazioarteko krisi batean murgildu gara: COVID-19k eragindako pandemia. Inolako zalantzarik gabe, **COVID-19k eragina izan du 2030 Agendan eta haren helburuak lortzean.** Munduko Itunaren Espainiako Sarearen arabera (2020), pandemiak Agendan eta Garapen Iraunkorreko Helburuetan eragin positiboa izan du klima aldaketaren kasuan, baina oso negatiboa beste kasu batzuetan; izan ere, Europako Erkidegoaren osasuna kaltetu da, desberdintasunak areagotu dira eta munduko ekonomia moteldu da. Horrek arriskuan jar litzake garapen iraunkorrerako programa nazionalen aplikazioa eta Klima Aldaketari buruzko Parisko Akordioa.

Hala ere, **inoiz baino gehiago, elkarrekin lan egin behar dugu tokian-tokian eta mundu osoan, krisi honen ondorioak leheneratzeko.** Hain zuzen ere, horren harira, 2030 Agendak eta 17 GJHeK ibilbide orri komuna izan nahi dute erronka horiei aurre egin eta erantzuna emateko:



## GURE EGUNGO MUNDUAREN ERRONKAK

Milioika mila herritarrek jarraitzen dute pobrezian bizitzen, bizitza duinaz gabetuta.

Desberdintasunak gero eta handiagoak dira, bai herrialdeen barruan, bai herrialdeen artean.

Desberdintasun handiak daude, aukerei, aberastasunari eta botereari dagokienez.

Generoen arteko desberdintasunak jarraitzen du funtsezko erronka izaten.

Oso kezagarria da langabezia, batez ere gazteen artean.

Osasunerako arrisku ugari dago mundu osoan, hondamendi naturalen maiztasuna eta intentsitatea handitu izanagatik, gero eta gatazka gehiago izateagatik, indarkeriaren estremismoagatik edo terrorismoagatik.

Munduko arriskuek eta, ondorioz, populazioaren krisi humanitarioek eta behartutako lekualdatzeek bertan behera gelditzeko arriskuan jartzen dituzte azken hamarkadetan garapenaren arloan lortutako aurrerapen asko.

Natura baliabideak agortzeak eta ingurumenaren narriaduraren efektu negatiboek areagotu eta larriagotu egiten dituzte gizateriak dituen zailtasunak.

Klima aldaketa gure garaiko erronka handienetako bat da, eta herrialde guztiek garapen iraunkorra lortzeko duten gaitasuna kaltetzen duteharen kontrako efektuek.

Temperatura globalaren igoera, itsasoaren mailaren igoera, ozeanoen azidotzea eta klima aldaketaren beste efektu batzuk eragin larria izaten ari dira kostaldeetako guzuetan eta altitude txikiko kostaldeko herrialdeetan, aurrerapen txikieneko herrialde eta garapen bidean dauden uharte estatu ugari barne.

Arriskuan dago sozietate askoren biziraupena, bai eta planetaren euskarri biologikoaren sistemena ere.

Iturria: Gure mundua eraldatzea: Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda (Nazio Batuak, 2015).

Euskadiren kasuan, erronka globalei jarraituz, Eusko Jaurlaritzak "2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa" aurkeztu du. Legegintzaldiko jarduera plana da, eta Trantsizio Sozialeko eta 2030 Agendarako Idazkaritza Nagusiaren 2021-2024 lan plana ezartzen du.

Lan plan horrek lehentasunezko lau ardatz ezartzen ditu, Nazio Batuen Ekintza Hamarkadari erantzuten diotenak:

- Dibulgazioa, Euskadi 2030 Agenda Kontratu Sozialaren kultura, eta helburu horrekin jarduera ildo bat sustatzeko.
- Sailen arteko, erakundeen arteko eta gizarteko gobernantza mekanismoak eguneratzeko koordinazioa, Ekintza Hamarkadako helburuen arabera.
- Ebaluazioa, Garapen Iraunkorreko Helburuak betetzeko euskal ekarpena lerrokatzeko, segimendua egiteko eta ebaluatzeko mekanismoak lehentasun berrietara egokitzeko.
- 7 trakzio konpromiso eta 7 proiektu enblematiko zehazten dituen lehenespena, Eusko Jaurlaritzak GJHen inguruan duen zehaztapena adierazten dutenak.



# NOR UZTEN ARI DA ATZEAN EUSKADIN?

Arestian aipatutako guztia kontuan hartuta, bereziki zaila da galdera horri erantzutea, uste baitugu talde sozial heterogeneoak eta askotarikoak direla, eta, gainera, ez dutela zertan denboran aldaezin mantendu.

Euskadin profil jakin batera hurbildu nahi badugu, **Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Bazterkeriari eta Garapenari buruzko Foessa 2019 txostenak** zenbait gako ematen dizkigu, euskal gizartearen agertoki jakin bat dela ulertuta, gaur egungo pandemia baino lehenagokoa. Gainera, gizartean bazterturik dauden pertsonengan jartzen du arreta. Hala ere, kaltetutako pertsona eta talde guztiak ez daude egoera horretan.

Alde batetik, Euskadin eragin handia duten arrisku sozialen hiru bloke nagusi identifikatu dira: **etxebizitza** (bloke honetan zailtasunak dituzte euskal biztanleen % 22,2k), **osasuna** (% 15,5) eta **enplegua** (% 14,5).

Bestalde, gizartean bazterturik dauden etxeen eta sostengatzaile nagusien profil soziodemografikoari dagokionez, 45 eta 64 urte bitarteko **emakumeak** dira sostengatzaile nagusiak, eta horietatik **% 48k egiten dute lan** -hau da, enpleguak berak ez du bermatzen gizarteratze egoera, lan baldintzei erreparatu behar zaie-, **10etatik 9 nazionalitate espainiarrekoak dira** eta erdiak **100.000 biztanle baino gehiagoko guneetan** daude.

Hala ere, Euskadiko gizarte bazterketaren banaketaren argazki bat da hori, baina bazterketa arrisku handieneko profiei erreparatzen badiegu, **30 urtetik beherako** sostengatzaile nagusiez **edo Europar Batasunetik kanpoko migratzaileez ari gara**.

Gainera, COVID-19 krisiaren ondorioz, handitu egin da pertsona eta talde sozial askoren ahulezia arriskua, baita pandemia baino lehen talde kaltetu gisa identifikatzen ez genituen batzuen ere –esate baterako, pandemian zehar, egoera bereziki zailan ikusi ditugu tokiko saltoki txikietan lan egiten duten pertsona autonomoak edo ostalaritza sektorea, euren lan jarduera gelditu egin behar izan baitute, eta, beraz, diru sarrera ekonomikoak murriztu egin baitzaizkie-. Are gehiago, egoera ahulean zeuden gizarteko pertsona eta taldeen kasuan, egoera hori larriagotu egin da.





**Kasu askotan, ahulezia epidemiologikoak lotura estua du ahulezia sozialarekin.** Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak egindako azterlan baten arabera, lotura dago osasunaren eta gizarte desberdintasunen artean. Zehatzago esanda, bizitokia faktore erabakigarria da osasunerako:

*Alde batetik, bertako egoiliarren ezaugarri sozioekonomiko eta demografiko indibidualak daude, eta horiek zehazten dituzte, klase sozialak, generoak edo jatorrizko herrialdeak bezala, bizi eta lan baldintzak. Eremu batean bizi diren biztanleen osasuna, beraz, "konposizio" efektu horrek baldintzatzen du, banakako ezaugarrien baturaren emaitza baita. Bestetik, testuinguruaren edo eremuaren efektuek eremu geografikoaren ezaugarriei egiten diete erreferentzia; izan ere, biztanleen ezaugarri indibidualetatik haratago, horiek baldintzatzen dute biztanleriaren osasuna. Testuinguruaren edo eremuaren efektu horien artean daude, besteak beste, ingurumen fisikoa, ezaugarri sozioekonomikoak eta kulturak, hirigintza, lan merkatua, eskura dauden zerbitzu publikoak edo pribatuak eta aisialdi-ko ekipamenduak (EJ, 2015).*

Hau da, gizarte bazterketarekin eta ahulezia egoerekin lotutako ezaugarri zehatzez gain, osasuna eta bizilekua ere hertsiki lotuta daude desberdintasun egoerekin eta eskubideak urratzearekin.

Foessa 2019 txostenera itzulita, azterlan honetarako beste gako garrantzitsu bat aurkituko dugu: *"Erabakiak hartzeko prozesuan egiaz parte hartzea da gure gizarteratze ereduaren funtsezko elementuetako bat"*. Hala ere, honako hauek dira datuak: gizarteaz bazterturik dauden familien **parte hartze politikoaren** tasa (% 11) txikiagoa da integrazio egoeran dauden familiena baino (% 26,9).

Ahulezia egoeran dauden pertsonen ahotsa ematea funtsezkoa da egoera horiei aurrea hartzeko eta lehengoratzeko. Horregatik, ikerketa honen helburua ez da soilik Euskadiko talde kaltetuei buruz hitz egitea eta haietako batzuen egoera sakon ezagutzea, baita haien aldarrikapenak eta ekintza proposamen zehatzak erakustea ere.

Aztertutako kasuetan, Euskadin kaltetutako 5 talderen bidez planteatutako gaiak aztertuko ditugu: **emakume ijitoak, gazteak, jornalariak, LGTB+ komunitatea eta emakume migratuak.**



# NOREN ARDURA DA ESKUBIDE HORIEK ERREALITATE BIHURTZEA?

## BETEBEHARREN TITULARREI BEGIRADA

**Maidar Maraña**

Baketik fundazioko zuzendaria

Lan honetan zehar errealitate-irakurketez hitz egingo dugu. Horiek adierazten digute egitura-sistemaren ondorioz desberdinkeriak daudela. Sistemak aurka ez borrokatzeaz gain, batzuetan, pertsona eta talde zehatzekiko desberdinkeriak eta diskriminazioak sustatzen ditu. Halaber, babes-sistemak ditugu, bereziki giza eskubideak, baita nazioarteko eta beste maila batzuetako politikak ere, hala nola Agenda 2030, norabidea adierazteko. Baina, **nork borrokatu behar du egiaz horren aurka? Nork egin behar ditu etxeko lanak?**

Giza eskubideak lege-berme unibertsalak dira, eta askatasun, berdintasun eta duintasunaren giza balioak babesten dituzte, jaiotzen garenetik pertsona orori baitagozkigu. Gainera, giza eskubideak eraikuntza historikoa dira, pausoz pauso jaio direlako, mailakatuta, eta **etengabe eraiki eta berreraikitzen ari direlako. Bidegabekeria salatzenko tresnak dira eta gizarte-borroken emaitza direnez**, lorpen modura ikusi ohi dira.

Nazioarteko arau eta estandarretan onartzen dira, beraz, jakitun gara hor daudela eta erreklama ditzakegu betetzen ez badira. Baina **nork bermatzen du eskubide horiek betetzea?**

Oro har, hurbilketa "klasikoaren" arabera, *betebeharren titularrak edo eskakizunen titularrak* **Estatuak** dira: munduko herrialdeetako gobernuak behartuta daude, giza eskubideei buruzko legedian oinarrituta, **zenbait gauza egitera eta ezin dituzte beste batzuk gauzatu**. Hauek dira, hain zuzen ere, giza eskubideak errespetatu, babestu eta egiteko betebeharrak:



BETEBEHARRAK	ZER ESAN NAHI DU?	ADIBIDEZ?
<b>ERRESPETATZEA</b>	Errespetatzeko beharraren-gatik ezin daiteke egitea oztopatu edo saihestu.	Estatuek errespetatzeko betebeharrak haur urratuko lukete haur ijitoei ez baliakete eskolara joatea uzten.
<b>BABESTEA</b>	Erakunde publikoek onetsitako erantzukizuna da, zeinaren bidez hirugarren eragileak gure eskubideak ez dituela urratzen bermatzen duten.	Estatuek babestu behar dituzte jernaleroen lan-eskubideak eta saihestu pertsona kontratatzaileek onetsitako estandarrik ez betetzea eta duintasunaren aurka joatea. Hala, bermatu behar dute gutxieneko ordainsaria ematen zaiela.
<b>EGITEA</b>	Hirugarren alderdi honek eragile publikoek behartzen die politikak, neurriak, aurrekontuak eta programak onartu eta abian jartzera eskubideak oso-osorik inplementatzen direla bermatzeko.	Erakundeek politikak inplementatu behar dituzte osasun-sistema publikoetan aniztasunari behar bezalako arreta emateko. Hala, sartuko da, adibidez, LGTBQ+ taldeko pertsonen arreta, langileen prestakuntza, programa berezi eta aurrekontuen bidez, behar bezalako eta diskriminaziorik gabekoa dela bermatzeko.

Era berean, sarritan, entzuten da Estatuak ezin dutela eskatzen dugun guztia inplementatu aurrekonturik ez dutelako. Hala eta guztiz ere, *egite mailakatua* izenekoa dago. Horren bidez, erakundeek neurri egokiak hartu beharko dituzte, gehieneko baliabide eskuragarriak erabilita, ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideak egiaz eta oso-osorik inplementatzeko. Baina errealitate horrek ez die gobernuei salbuesten, eta berehala jarri behar dituzte abian eskubideen ikuspegitik zenbait funtsezko neurri, besteak beste, diskriminazioko arau guztiak deuseztatzea, gutxieneko oinarriko betebeharrak bermatzen dituzten neurriak abiaraztea edo dagoeneko lortutako eremuetan "atzera ez egiteko" konpromisoa, hau da, neurri erregresiboan debekua.

Noski, argitalpen honetan identifikatzen ditugun taldeen artean (emakume ijitoak, gazteak, emakume jernaleroak, LGTBQ+ komunitatea edo emakume migratuak) **betebeharren titular argiak dira, besteak beste, gure herrialdeetako administrazioak, Estatuko gobernuetatik hasita, erkidego, foru eta tokikoetara.** Are gehiago, gobernu horien mendeko erakunde eta institutu guztiak aktore izan daitezke, eta giza eskubideak betetzeko orduan erantzukizunak izango dituzte.

Eskubideen arloan erakunde publikoen betebeharren adibide bat aurki dezakegu ijitoen biztanleriaren inguruan: nazioarteko komunitateak erakutsitakoari jarraikiz, ijitoen arazo nagusietako bat da komunitate horiekiko **xenofobiaren aurka egiteko borondate politiko argirik eza.** Nazio Batuen arabera, "nazioartean eta eskualdean aurrerapauso garrantzitsuak eman arren, nazioan eta tokian gabeziak daude, eta komunitateak erabat aldatzeko funtsezkoak dira. Tamalez, erromanien desabantaila zuzentzeko neurriak oraindik, neurri handian, agintean dagoen agintari politiko zehatzak erabakitzen duenaren arabera dira" (NNBB, 2015).



## KONTU EMATEA: ESTATUKO AKTORE ETA ERAKUNDEEN BETEBEHARRAK:

---

Administrazioek gardenak izan behar dute, eta, gainera, ezagutza eta informazioa zabalduko dituzte giza eskubideak egite aldera politikak garatu eta programak abian jartzen ari direla bermatzeko. Besteak beste, ondorengo hauek dira beren eginkizunak:

- Nazioko legeak giza eskubideen nazioarteko tratatuen arauekin bat datozela bermatzea.
- Gure eskubideei buruz pertsonak informatu eta hezte eta gizartean aldaketa sozialerako aliantza zabalagoak sortzea.
- Aurrekontuak gardentasunez egiten direla sustatzea eta aurrekontu-analisiaren gaitasuna areagotzea.
- Kanalak babestea datuak ematen dituzten informazioa eta estatistikak izateko.
- Teknikarien artean politikak aztertu eta inpaktu soziala ebaluatzeko gaitasunak gehitzea.
- Informazio-bitartekoaren askatasunaz ohartaraztea (OHCHRn oinarrituta, 2006).



Beste urratsa bat emanez, ikusi dugun bezala, giza eskubideetan jatorrizko arauak zabalduz eta zehaztuz joan dira **jarduketa-arauen multzo** bihurtu arte. Hori abiapuntutzat hartuta, azaltzen dira **betebeharren titularren erantzukizunak**, eta ez dira bakarrik **Estatuko organoenak**, baita **gi-zarteko maila guztienak ere** (OCHCR, 2006). Modu horretan, **norberak bere giza eskubideak errespetarazteaz gain, gainerakoen giza eskubideak errespetatu behar ditu.**

Dena den, nahiz eta guztiak, neurri batean, beste pertsona batzuen giza eskubideak ez urratzearen arduradun sentitu, argi dago eragile batzuk modu adierazgarrian deituta daudela eskubideen babes-estandarrak zorrozki betetzera. Adibide nabarmena da enpresa pribatu eta eragile ekonomikoaren rola: hamarkadetan zehar zaila izan da korporazioei giza eskubideak errespetatzeko eskatzea, baina gaur egun Nazio Batuetan tresnak ditugu agerian uzteko **bai enpresek, baita enpresa horiek harremanetan jarduten duten herrialdeek ere gure eskubideak bete behar dituztela.**

Illo horri eutsiz, enpresek berezko komunitateen, hala nola herri indigenen, eskubideak urratu dituztenean edo isurketekin ingurumen osasuntsua izateko herrien eskubideak kaltetu dituztenean, Estatuek ezinbestez babestu behar dituzte enpresen urradura horien aurrean. Batetik, prebenitzeko neurriak hartu behar dituzte (enplegua lortzean diskriminaziorik gabeko legea edo enpresa batek gure lurraldean inpaktua izango duen zerbait egin nahi duenean informaziorik ez izatearen aurkako legea) eta, bestetik, dagoeneko eskubideak urratu direnean, ikertu, zigortu eta zuzentzeko mekanismoak bermatuko dituzte.

Enpresek, bereziki mugaz haraindiko korporazioek, nabarmenki urratu dituzte giza eskubideak, eta oraindik hala diraute, hortaz, gero eta kontrol zorrotzagoa eskatu behar da, batez ere, funts publikoetatik dirua jasotzen duten korporazio guztietan. Adibide ugari daude dokumentatuta non "enpresek oso eraginkorrak ez diren eta gaizki aplikatuta dauden nazioko araudiak erabiltzen dituzten pertsona eta komunitateetarako ondorio suntsitzailaekin" (Amnesty International). Horren aurrean, ordea, ia ez dago mekanismo eraginkorrik giza eskubideen aurkako enpresen abusuak saihesteko edo beren jarduketan kontu emateko.

Nazio Batuei jarraikiz (OHCHR, 2011), giza eskubideak errespetatzearen erantzukizunak eskatzen du enpresek:

- beren jarduerarekin giza eskubideen gaineko ondorio negatiboak ez sortzeko edo horietan ez laguntzeko eta gertatzen direnean ondorioei aurre egiteko.
- Merkataritza-erlazioei lotuta, eragiketekin, produktuekin edo zerbitzuekin harreman zuzena duten giza eskubideen gaineko ondorio negatiboak prebenitu edo arintzen saiatzeko, nahiz eta sortzen ez lagundu.

Erantzukizun horiek enpresen **ekintzei eta ez-egiteei** aplikatzen zaizkie, hau da, eurek sortzen dutenari eta urradurak saihesteko egiten ez dutenari.

Baina, urratuak izan diren taldeei eutsiz, oso alderdi erabakigarria da **enpresa guztiek ezinbestez sortzen dituzten diskriminazioei aurre egin behar dietela:**



## ENPRESAK: DISKRIMINAZIORIK EZAREN ARLOAN BETEBEHARRAK

Enpresek diskriminaziorik gabe lan egin behar dute, eta **arreta berezia jarriko diete taldeko pertsonen edo eskubideak urratzeko eta baztertzeko arrisku handiena duten herritarren eskubide, behar eta arazoei.**

Gainera, aplikatu behar da **diskriminazio aktiboaren** (adibidez, enpresa batek emakumerik ez kontratatzea erabakitzen badu) eta erakundearen beraren egitura edo funtzionamenduan **nahi gabekoaren** kasuan (OHCHR, 2011).

Esaterako, Nazio Batuek irmoki baiesten dute "emakumeek enpresa-jardueren kontrako ondorioak jasaten dituztela neurri gabe eta bestelako moduan" (NNBB, 2019); hor sartzen ditu neskak eta emakume transgeneroak eta intersexualak. Emakumeek ekonomiari egindako ekarpena (adibidez, etxeko lanak) ez da onartzen edo gutxietsia dago (esaterako, batez ere emakumeak aritzen diren lanbide eta industrietan). Emakumeek mendeko pertsoneri arreta emateko lan gehienak egiten dituzte (adibidez, seme-alabak, adinekoak, gaixoak eta desgaitasunak dituztenak zaintzea), baina gehienek ez dute ordainsaririk jasotzen (NNBB, 2019). Eta horrek guztiak bere isla du lanbidearen eremuan eta enpresen munduan. Horrez gain, **egoera larriagotzen da diskriminaziozko beste aldagai batzuk gurutzatzen direnean emakume etorkinen edo emakume ijitoen kasuan, adibidez.**

Garrantzitsua da ulertzea arau horiek ez zaizkiela bakarrik nazioz gaindiko korporazio handiei aplikatzen: gure lurraldean aritzen diren **enpresa txiki eta ertainek**, esaterako, bermatu behar dute haien talde profesionalaren giza eskubideak urratzen ez dituztela, ezta jarduten duten ingurunean bizi diren pertsonenak ere. Enpresaren tamainak tratu egokia bermatzez ez du salbuesten eta ez ditu erantzukizunak balio gabetzen.

Gainera, ekonomiaren eta lanaren esparruan oso eragile garrantzitsuak dira **sindikatuak**; beren zeregina da egoera kalteberan dauden langileen eskubideen alde borrokatzea eta esparru ekonomikoan gertatzen diren izugarrikeriak salatzea.

Berezko adibidea eman daiteke **etxebizitzaren eskubidearen** inguruan: zenbait talderi, hala nola etorkin, ijito, LGTBQ+ pertsona eta bestelakoei, sistematikoki ezesten zaie etxebizitza alokatu edo erosteko eskubidea. Etxebizitza lortzeko orduan diskriminazioa jasan dezakete **etxebizitza pribatuetako jabeek, higiezin agentziek edo kreditu-emaleek** (bankuek, adibidez, hipoteka edo alokairurako babesa ezetsi dezakete) **bidegabeko tratua emateagatik**. Horregatik, eragile horiek ere giza eskubideak urratzearen arduradun izan daitezke.

Hitz batez, azkeneko hamarkadetan giza eskubideen arloan aurrerapausoak eman arren, **esku-bide horien gozamina errealitate praktikoko bihurtu behar dugu**, borondate politiko eta giza baliabide eta bitarteko ekonomikoez baliatuta, beste eragile batzuek urratzen ez dituztela bermatzeko. Tamalez, oraindik diskriminazioa pertsona eta talde askorentzat eguneroko errealitatea da, eta klima-aldaketaren, pandemia globalen edo etengabeko finantza-globalizazioaren antzeko erronka berriak egoera larriago dezakete.

Garrantzitsua da gogoraraztea zailtasun ekonomikoek ez dietela aginte publikoei betebeharrak betetzez salbuesten, eta ez dutela eskubiderik giza eskubideen kaltean bestelako gaiak lehenetsiko. **Erabakigarria da pertsona eta talde gisa ahalduntzea zaintza bultzatzeko, gogorazi behar baitaie betebeharren titularrei zer erantzukizun dituzten.**











# AZTERTUTAKO KASUAK





# 1 AMUGE, EMAKUME IJITOEEN KASUA

*"Kolektibitatea individualismoaren aurrean"*  
(Tamara Clavería Jiménez, AMUGEko presidentea).

AMUGE Euskadiko Emakume Ijitoen Elkartearen egitekoa da, oro har, ijito komunitatearen eskubideak eta garapen osoa defendatzea eta sustatzea, eta, bereziki, EAEko emakume ijitoen arreta, sustapena eta ahalduntzea, beren etnia eta kultura berezitasuna galdu gabe.

AMUGE 2003ko uztailaren 18an sortu zuen ijito eta ijito ez diren emakume talde batek, eta aitzindariak izan ziren Euskadin. Elkartearen ibilbidearen bilakaeran, zuzendaritza batzordearen protagonismoa eta ahotsa emakume ijitoen esku geratu da, emakume ijitoen beharrak haien ahotsean egon behar dutela ulertu baita. 2012ko apirilean, Tamara Clavería Jiménezek, gizarte eta hezkuntza arloan prestakuntza eta esperientzia duen emakume ijitoak, bere komunitatean ezagunak diren beste bi emakumerekin batera, elkartearen agintea hartu zuen, eta hiru horietako lehena da AMUGEko presidente berria. Gaur egun, 117 kide ditu elkarteak.



AMUGE-k utzitako irudia

### **Ijitoen eta, bereziki, emakume ijitoen egoera Euskadin:**

- Euskadiko ijito komunitatearen % 43 muturreko pobrezian dago.
- Euskadiko ijitoen 3 familiatatik 2k ez dituzte oinarritzko beharrak aseta.
- Euskal emakume ijitoen bizi itxaropena gainerako euskal gizartea baino 20 urte txikiagoa da, baita gizon ijitoena baino txikiagoa ere.
- Ijitoek % 64ko eskola porrota dute; euskal gizarteak, berriz, % 13koa. Bi urteko curriculum desfasea dago ikasle ez ijitoen aurrean.
- Emakume ijitoen % 6k soilik egiten du aurrera arrakastaz Euskadin bigarren hezkuntza etapan.
- Euskal Ijito Herriaren % 0,29k bakarrik lortzen du goi mailako hezkuntza.
- EAEko emakumeen okupazioa % 57,10ekoa da, eta emakume ijitoena, berriz, % 33,6koa. Emakume ijitoen okupazio nagusia norberaren kontura egiten denez, besteren konturako okupazioa bakarrik kontuan hartuta, kalkulatu da ez litzatekeela % 5era iritsiko.
- Euskadin ijito etniako 14.000 lagun zeuden 2006an.

Testuinguru horretan, AMUGEK egiaztatu du ijitoen feminismoaren kultura, historia, hizkuntza eta materialak ikusezin bihurtu direla, eta gizarteak ez dituela aintzat hartzen ijitoentzat seinalatutak diren egunak, hala nola apirilaren 8a, Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna, edo azaroaren 16a, Euskal Ijito Herriaren eguna.

Era berean, historian eta egituran izan den antigitanismoaren ondorioz, argi ikusten da Euskadin prestakuntza eskasa dutela ijitoek, erreferentziak irudi urri dagoela emakume eta gazte ijitoentzat edo aukera gutxi dituztela lan merkatuan sartzeko eta etxebizitza eskuratzeko. Izan ere, ijito batentzat lana lortzeak edo etxebizitza alokatzeak euren nortasun kulturala ezkutatu behar izatea dakar batzuetan.

Arrazakeriak esparru guztietan eragiten du, eta bere marka uzten du talde etnikoen banaketa geografikoari dagokionez ere. Bereziki, euskal ijito-herria bereizketa zuzen eta zeharkakoa pairatzen du, eta horren ondorioz auzo baztertuak sortu eta getizatu egiten dira, non eskubide asko ez diren betetzen. Adibide argia da Bilboko Otxarkoaga auzoarena, auzo horretan bakarrik ez baitute B eta D eredurik, eta ukatu egiten baitute euskarazko eta kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera.

Gainera, erakutsitako datuek COVID-19k eragindako pandemia baino lehenagoko egoera islatzen dute, baina oinarritzko premien estaldura falta areagotu egin da. Are gehiago, pandemiaren hasieran, ugaritu egin ziren ijitoen aurkako eraso arrazistak, herri oso bat birusaren transmisore gisa orokortuz eta kriminalizatuz: lehenbizi Asiako komunitateekin gertatu zen, eta, gero, ijitoekin.

Arrakala digitala inoiz baino nabarmenagoa da, eta horrek ondorio larriak ekarri ditu bereziki hezkuntzan. Kasu askotan, baliabide gutxiko ijito familiek zailtasunak izan dituzte edo ezin izan dute beren seme-alaben hezkuntza bermatu, eta horrek eragin larria izan du ezagutzak eskuratzeko orduan.

Elkarteak lan karga gehigarria izan du, eta sortu diren beharrei erantzun die: elikagaiak eta hezkuntza materialak banatzea, eta administrazioekin online egin beharreko izapideak egiten laguntzea.

Euskal Ijito Herriak aurrean dituen desberdintasun egoerei erantzuteko, bi helburu nagusi ditu AMUGEK: ijito herria hezte eta emakumeen eta gizonen arteko eta ijitoen eta ijito ez direnen arteko benetako berdintasuna eraikitzea. Bere proiektuek ikuspegi bikoitza dute: feminista eta arrazismoaren aurkakoa, hain zuzen ere, bere misioari eta balioei erantzuteko. AMUGERen printzipio



gidaria ijitoen feminismoa da. Gizon ijitoen eginkizuna planteatzen dute, gizarte gehiengoarena bezalaxe, dituzten pribilegioak zalantzan jarriz, konplizitatez eta paternalismorik gabe.

*"Kolektibitatea indibidualismoaren aurrean"* (ijitoen feminismoa).

Hain zuzen ere, ijito herriaren funtsezko printzipioetako bat, ijitoen feminismoak ere jasotzen duena, komunitatetik lan egitea da indibidualismo ezkutuaren aurrean. Era berean, uste dute aliantza dela aurre egiteko eta borrokatzeko modu bakarra, *"kolektibotik, ez hierarkizaziotik, errespetutik, maitasunetik, lan onetik"* adierazi du AMUGEko presidentek.

Azkenik, naturarekin duten aspaldiko harremanean, euren banderan ere islatzen dena, bi zerrendatan banatua baitago: urdina eta berdea (zerrenda urdinak zerua sinbolizatzen du, etxeko sabaia, eta zerrenda berdeak, berriz, belarra eta lurra sinbolizatzen ditu), nahiz eta ijitoak hiritarra-go bihurtu diren heinean galtzen joan den, naturaren, ibaiaren, suaren... inguruan egiten dituzte jaiak, konexio horretaz asko gozatzen dutela adieraziz.

Hain zuzen ere, AMUGEn, azoka txikietan plastikoaren erabilera murrizteko lan egiten ari dira. Zailtasunak daude erronka horiei erantzuteko orduan, oinarrizko premiak, hala nola etxebizitza edo enplegua lortzea, bete gabe daudenean. Hala ere, alderdi horretan urratsak egiten ari dira, sensibilizazio kanpainak gizartearen alde guztietara irits daitezten.

#### **Eskaera nagusiak:**

- Aurrera egitea Euskal ijito herriaren egoera zein den jakiteko bidean.
- Erreparazio politikak eta berriz ez gertatzeko bermeak sortzea.
- Historikoki ukatu izan den enplegurako eskubidea bermatzea.
- Zerbitzuen eta baliabideen portzentaje bat sistemak kaltetzen dituen ijitoei eta taldeei zuzenduko zaiela bermatzea.
- Ijitoen kultura sistema publikoetatik, instituzioetatik eta gizartearen gehiengotik ezagutzea, hala nola osasun sistematik edo hezkuntzatik.
- Hezkuntza eta osasuna bezalako esparru publikoetako profesionalak prestatzea kulturarteko metodologietan eta metodologia feministetan.
- Emakume ijitoen identitateari buruzko sensibilizazio kanpainak egitea, emakume ijitoei buruzko estereotipoak eta imaginario hori guztia haustuz.
- Politikan integrazioa kontzeptua inklusiora aldatzea.
- Emakume ijitoen ordezkaritza handiagoa botere karguetan eta erabakiak hartzeko karguetan.



AMUGE-k utzitako irudia



## BIZITZAREN HISTORIA: MARI MAR CLAVERÍA



AMUGE-k utzitako irudia

Mari Mar Clavería Jiméñez emakume ijito boluntarioa da, AMUGE Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarteko batzordeko kidea. Zoriontsu sentitzen da bizitzan zehar egin duen prozesuarekin, batez ere haurtzaroa eta nerabezaroa gogoratzen dituenean. Izan ere, uste du haurtzaroa eta nerabezaroa oso etapa onak izan direla bere bizitzan, irakatsi zaizkion balioei eta familiak eman dion laguntzari esker.

*"Horrelakoak gara maite izan gaituzten eta gure erabakiak babestu dituzten familia batean jaiotzeko zortea izan dugulako"*

Gaztetan ezkondu zen, eta gero banandu egin zen, eta gaur egun bere bi seme-alabez gozatzen du. Helduaroa garai ezin hobe gisa bizi du, bere lanbideari eta emakume ijitoaren aldeko borrokari berriro heldu baitio.

Mari Marrentzat, emakume ijitoen eta ijito ez direnen arteko berdintasuna da erronkarik handiena, antzematen baitu gizartean ez dagoela ijitoekiko aukera berdintasunik, eta ez da berdintatua sentitzen ijitoa izateagatik. Kontatu digu, esate baterako, ile apainketako eta estetikako ikasle diren emakume ijitoekin bitartekari lanak egiten ari zela, ikasle horiek kalifikazio onak izan arren, oso zaila izan zela emakumeek beren praktikak egitea; izan ere, lanpostua emakume ijito batentzat zela jakitean, ez zituzten onartzen. Eta egoera horrek okerrera egiten du enplegu bat aurkitzerakoan.

*"Emakumea naiz, ijitoa naiz eta euskal herritarra naiz",* dio harro.

Bestalde, ijitoen artean zegoen eten digitalaren ondorioz pandemian bizi izandako zailtasunei buruz ere hitz egin digu Mari Marrek. Hain zuzen, bere laguntza eta ezagutzak eskaini zituen beste emakume batzuek administrazio publikoetan online sartzeko aukera izan zezaten, hura baitzen sartzeko modu bakarra.

Bere diru iturrian ere zailtasunak izan zituen, azoka txikietan lan egiten baitu. Saltoki handiak baino lehen itxi zituzten azoka txikiak, eta, gero, neurri murriztaileekin ireki ziren.

Azkenik, etorkizun alternatiboez hitz egitean, ijito herria sozialki eta erakundeen aldetik aintzatesia izango den etorkizunarekin egiten du amets Mari Marrek, non enplegua izateko eskubidea eta aukera berdintasuna erronka izango ez diren.



# 2 EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA (EGK), GAZTEEN KASUA

*"Asko hitz egiten den etorkizuna gara, baina oraina ere bagara"*  
(Maialen Olabe, EGKko presidentea eta koordinatzailea).

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) 1986an sortutako erakunde autonomoa da. Bere eginkizuna da gazteen iritzia, proposamenak, ideiak eta beharrak biltzea, gero EAEko erakunde publikoei helarazteko eta gazteak inplikatzeko dituzten planetan eta proiektuetan eragiteko.

EGKren beste eginkizun nagusietako bat da politika publikoek Euskadiko gazteen errealitateari erantzuten dioten egiaztatzea.



EGK-ak utzitako irudia



Horretarako, proiektuak asmatu, topaketak antolatu eta lantaldeak sortzen dituzte honako lan arlo hauetan: Enplegua eta Etxebizitza, Hezkuntza, Parte hartzea, Berdintasuna, Bakea eta Bizikidetasuna eta Komunikazioa.

Edozein gaztek parte har dezake dinamika horietan.

#### **Gazteen egoera Euskadin:**

- Gazteen % 68,1ek aldi baterako kontratuekin egiten du lan, eta gazteen % 30,3 lanaldi partzialan dago.
  - Gazteen batez besteko soldata 1.093 eurokoa da, emakumeen kasuan 1.025 eurokoa eta gizonen kasuan 1.158 eurokoa.
  - Gazteen langabezia tasa % 19,7koa da, eta orokorra, berriz, % 10,2koa.
- Emantzipatzeko batez besteko adina 29,6 urtekoa da, Europako batez bestekoa baino 6 urte gehiago. Gazteen % 37,9 baino ez dago emantzipatuta.
- Euskadiko gazte batek, batez beste, diru sarreren % 69,3 bideratzen du etxebizitzara (% 77,1 emakumeen kasuan eta % 64,4 gizonen kasuan). Europan % 30 bideratzea gomendatzen da.

Gazteen artean interes eta behar desberdin asko daude, kolektibo oso anitza baita. Hala ere, 2008ko krisiaz geroztik, bizitza proiektu bat sortzea izan da alderdirik zailena. EGKren iritziz, emantzipatzeko eta norabide berri bat sortzeko aukera da bizitza proiektua sortzea, eta horretarako, enplegua eta etxebizitza funtsezkoak dira eta lotura estua dute.

Gazteen erronka nagusietako bat lan merkatuan sartzea da, hain zuzen ere. Adierazleetan ikus daitekeen bezala, bereziki kezkarriak dira gazteen enplegarritasunari buruzko datuak.

Emakume gazteen kasuan, edozein gazteren erronkei egin behar die aurre, eta, horrez gain, enpleguaren alorrean bereziki esanguratsua den genero arrakalaren berezko erronkei ere egin behar die aurre. Izan ere, emakume gazte gehienek aldi baterako kontratuak dituzte, eta ezegonkortasun handiagoa dute beren bizitza proiektua garatzeko orduan.

Langabezia eta lan prekarietatea areagotu egin dira COVID-19k eragindako pandemiarekin. Baina gazteen kasuan, horri gehitu behar zaio askotan ezjakintasuna eta esperientzia falta dutela lan eskubideei, ABEEEi (Aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak, pandemian zehar enpresa askok hartutako neurria) eta abarri buruz.

Etxebizitzari dagokionez ere ez da askoz hobeia gazteen egoera. Adierazleetan ikusten den bezala, Euskadin emantzipatuta dauden gazteak gutxiengoa dira, eta batez bestekoa 29,6 urtekoa da, eta EGKk 30 urteko muga hartzen du kontuan helduarora pasatzeko eta gazte izateari uzteko.

Azkenik, ingurumenarekin duten harremanean, gizarteko alderdi kontzientziatutako bat dira gazteak, belaunaldi gazteenen hezkuntzan txertatutako gaia baita.





### Eskaera nagusiak:

- Aurreko krisietatik ikastea eta lan arloan prekariedade ereduak ez errepikatzea, ez eta kalitatean murrizketak egitea ere. Bi gauzak konpontzea: lan prekariedadea eta langabezia tasa.
- Alokairu sozialaren alde egitea. Etxebizitza hutsak daudela kontuan hartzea, erregistro bat egin eta administrazio publikoen esku utzi ahal izateko, haiek kudea ditzaten.
- Gazteak eta beste talde eta kolektibo batzuk elkartzeko eta parte hartzeko guneak aldarrikatzea.
- Gazteekiko paternalismoak atzean uztea.



EKG-ak utzitako irudia





Ainhoa Azkaratek utzitako irudia

*“Etorkizunera begirako politikak egin behar dira, baina gaurtik hasita”.*

Ainhoa Azkarate 23 urteko emakume gaztea da, Filosofia, Politika eta Ekonomian graduatu berria. Gaur egun Deban bizi da. Herri horretan hazi zen eta ondoren herritik joan zen unibertsitatean ikastera.

Hain zuzen ere, gazte gisa aurre egin behar izan zion lehen erronketako bat izan zen zer ikasi eta etorkizun profesional zalantza-garria norantz bideratu erabakitzea, eta jaiotako herria atzean utzi zuen hirira bizitzera joateko. Gaur egun, urrun ikusten du bere bizitza proiektua sortzeko ideia, oraindik ez baita lan merkatuan sartu eta ekonomikoki familiaren mende baitago.

Ainhoak gazteentzat garrantzitsutzat jotzen duen beste erronka bat da kolektiboaren eskura dauden baliabideak ezagutzea: dauden beka programak eta parte hartzeko espazioak ezagutzea, gazteei zuzendutako baliabideak ezagutzea eta eskatzen ikastea, haiek aprobetxatu ahal izateko.

Izan ere, Ainhoarentzat, gazte gisa garrantzitsuena da beste pertsona batzuekin batera parte hartzeko eta iritzia emateko espazioak izatea, emakume gaztearen ikuspegitik hainbat gairi buruz hitz egiteko, eztabaida egiteko espazioak, eta, bereziki, erakundeek espazio horietara jo dezaten kolektibo osoaren iritzia eta beharrak kontsultatzeko eta beren politikan sartu ahal izateko.

Adierazi du pandemian, mundu guztiak bezala, “gelditu egin behar izan duela”, eta zorionekoa dela aitortu du familiaren etxera itzultzeko aukera izan duelako eta etxebizitza ordaintzeko beharrik izan ez duelako.

Belgikan ikasle gisa izan duen esperentziaz ere hitz egin digu. Esan digu harridura sortu ziola hango hezkuntza sistemak, planeta zaintzea eta iraunkortasuna irakasgai guztien zeharkakotzat hartzen baititu, erantzukizunetik eta konpromisotik abiatuta. Hala ere, oro har, bide luzea dagoe-la egiteko uste du, eta horren alde kontzientzia orokorra sumatzen du gazteengan.

Bere ustez, etorkizunari begira egin behar dira politika publikoak, baina gaurtik jardunez. Era berean, uste du jarduera horiek ez direla soilik banakotasunetik landu behar, baizik eta kolektibotik: *“Petrolio enpresen (gaur egunean bizi nahi dutenak), eta etorkizunean ere bizitzeko leku bat izan behar dugula uste dugunon arteko harremana. Etorkizunera begirako politikak egin behar dira, baina gaurtik hasita”.*



# 3

## MUNDUKO LANDAGUNEA ETA ENDAA, JORNALEROEN KASUA

*"XXI. mendeko Euskadik zenbait lan baldintza izan behar ditu, kolektibo eta pertsona guztiok izan behar ditugun gutxieneko baldintza batzuk. Eta hori ezinbestekoa dela uste dut"*

(Auxtín Ortiz, ENDAAko presidentea, MLko zuzendari ohia).



FRM eta ENDAA-k utzitako irudia



Munduko Landagunea (ML) sare anitza da, familia nekazaritza eta landa garapen iraunkorra sustatzen dituena. Familia nekazaritzaren federazioek eta erakundeek, landa garapeneko erakundeek, kooperatibek eta nekazaritzako ikerketa zentroek osatzen dute.

Munduko Landaguneak bost kontinenteetako 90 herrialdetan baino gehiagotan, 35 milioi familia nekazari baino gehiago ordezkatzan dituzten erakundeak biltzen ditu. Horrez gain, lankidetzak harremanak ditu mundu osoko kanpoko ehunka erakunderekin.



FRM eta ENDAA-k utzitako irudia

Lankidetzak horien barruan, Munduko Landaguneak ENDAA elkartearekin (Euskadik ez du inor atzean uzten) lan egiten du langile jornalarien egoera hobetzeko. Elkarte hori herritarren erantzun gisa sortu da, COVID-19k eragindako krisiak milaka pertsona eta familiarentzat sortu duen egoera larriaren aurrean. Nahiz eta biztanle guztietan izan duen eragina, krisi guztietan bezala, ondorioak gehien pairatu dituzten pertsonak jada ahulezia egoeran zeuden biztanleak izan dira. Hala, ENDAAk indarberritze sozial eta ekonomikoa bultzatzen du, eta, horretarako, arlo horretako ekintza praktikoa egungo gizarte politikak hobetzeko analisi eta proposamen lanarekin uztartzen du, egoera ahulean dauden pertsonentzako aukerak sortuz.

#### **Sektorearen eta jornalarien egoera:**

- Nekazaritzaren sektorea da munduko enplegatzailearik handiena, eta munduko biztanleen % 40ri ematen dizkio bizibideak.
- 90eko hamarkadaren hasieratik, labore aniztasunaren % 75 inguru desagertu da soroetatik.
- Nekazaritzako biodibertsitatea hobeto erabiltzeak lagundu egin dezake dieta elikagarriagoak egiten, nekazaritza komunitateetan bizimodua hobetzen eta nekazaritza sistematik sendagoak eta iraunkoragoak izaten.

- Emakume nekazariak gizonek adina baliabide izango balituzte, 150 milioira jaitsiko litzateke munduan goseak dauden pertsonen kopurua.
- Euskal Autonomia Erkidegoan jornalari gisa guztira kontratatutako 7.209 lagunetatik 839 bakarrik dira emakumeak, eta % 61 EAetik kanpo bizi dira.

Modu egokian kudeatuz gero, nekazaritzak, abeltzaintzak, basogintzak eta akuikulturak nutrizio eta kultura aldetik egokia den elikadura eman diezaiokete planeta osoari, bai eta diru sarrera egokiak sortu, landa eremuko biztanleria ardatz duen garapena bultzatu eta ingurumena babestu ere.

Hala ere, munduko nekazaritza eta elikagaigintza sistemaren erreforma sakona egin beharko litzateke, pertsona guztiek, batez ere goseak dauden 815 milioiek, elikagai osasuntsuak eta kalitatezkoak eskuratzeko aukera izan dezaten.

Genero arrakalari eta emakumeek sektorean duten rolari dagokienez, Munduko Landaguneak Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Erroldan oinarrituta egindako txosten batean ageri da Euskadin ustiategien titular diren emakumeen kopurua % 30 ingurukoa dela. Nahiz eta zenbait aurrerapauso egin diren, hala nola Eusko Legebiltzarrak 2015ean Emakume Nekazarien Estatutua onartu izana (lehen sektorean eta landa ingurunean emakumeen lan egoera arautzen duena), oraindik ere uste dugu gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna eta sektorea gaztetzea funtsezko faktoreak direla landa eremuan eredu sozial eta ekonomikoaren iraunkortasuna bermatzeko.

Munduko emakume nekazariak berebiziko garrantzia dute produkzioan, bai eta beren familientzako eta komunitateentzako elikagaien horniduran ere. Emakumeak protagonista dira tokiko ekonomiak eraikitzen eta elikagaien segurtasuna zaintzen munduko herrialde eta eskualde askotan. Hala ere, nekazaritzari eta gizarteari egiten dizkioten ekarpenak gutxietsita daude, eta nekazaritzako politika eta programa gehienak ez dira sentikorrek emakume nekazarien behar espezifikoekiko. Emakume askok ez dute ia aukerarik lurra eskuratzeko, ura eskuratzeko, ez eta baliabide natural horien gaineko kontrolik ere; ez dute ez merkatuetarako ez hezkuntzarako sarbiderik, eta ez dute ahots politikorik nekazarien erakundeetan eta estatueta gobernu organoetan. Genero diskriminazioari aurre egin behar diote etxean eta gizartean, egunez egun.

Jornalarien kasuan ere nahiko nabarmena da genero aldea. Adierazleetan ikusten dugu desberdintasun nabarmena dagoela jornalari gisa kontratatutako pertsonen dagokienez; beraz, Euskadin jornalari gehienak gizona dira.

Oro har, jornalarien egoera bereziki konplexua da Euskadin. Kolektibo kaltetu eta ikusezin samarra da azterketa eta datu estatistikoei dagokienez; hain ikusezina, non kolektibo horri buruzko adierazle zehatzak aurkitzea ere nahiko zaila baita. Horregatik, ditugun adierazle gehienak nekazaritza sektorearenak dira, oro har, eta ustiategien titularrenak.

Gainera, Euskadin oraindik antolatu gabe dagoen kolektiboa da, eta horrek asko zailtzen du proposamen komun bidez eskaerak biltzeko eta eskubideak aldarrikatzeko aukera.





Ohikoa da jornalariak lan prekarietate handia izatea, eta horregatik oztupoak dituzte, esate baterako, kotizaziopeko prestazioak jasotzeko, enpleguaren urtarokotasunagatik eta behin-behinekotasunagatik. Izan ere, enplegarritasuna eta lan baldintzak funtsezko faktoretzat jotzen dira jornalarien egoera hobetzeko.

Lan prekarietate horren ondorioz, Euskadin bizi diren jornalarien artean arraroa da nekazaritzan bakarrik lan egiten duen pertsona bat aurkitzea, lan baldintza txar horien ondorioz beste lan batzuk bilatu behar izaten baitituzte euren beharrak asetzeko. Horrek zaildu egiten du, halaber, jornalariak lanbidearekin identifikatzea eta, beraz, kolektiboaren autoantolaketa hori gertatzea.

Jornalarietako asko ez dira Euskadin bizi, hau da, beste herrialde batzuetatik etortzen dira enpleguak irauten duen denborarako, eta gero jatorrizko herrialdera itzultzen dira. Pertsona horiek bi erronkari egin behar diete aurre: jornalari lanbideari berari (berez oso balorazio sozial txikia duen lanbidea) eta migratutako edozein pertsonaren egoerari (askotan ez dute hizkuntza ezagutzen, ez dituzte sistema, lan eskubideak eta abar ezagutzen). Gainera, etxebizitzaz hitz egiteko orduan ere adierazgarria da alde hori; izan ere, beste herrialde batzuetan bizi diren pertsonak ez dute Euskadin etxebizitzarik izaten, eta kalteberagoak dira bizilekuari dagokionez.

Azkenik, COVID-19k eragindako pandemiari dagokionez, jada existitzen ziren desberdintasun sozialak agerian utzi baditu ere, nekazaritzaren eta jornalarien kasuan, elikagaien sektorea funtsezko sektoretzat jotzen denez, sektore horiek funtsezkoak direla nabarmendu da, eta hori askotan ahaztu egiten du gizarteak.



Photo by Mansado Louis on Unsplash

### Eskaera nagusiak:

- Landa munduari, oro har, eta landa lanari, bereziki, balioa ematea, funtsezko sektorea baita, baina gizarteak ez baitu aintzat hartzen.
- Nekazaritza politiketan txertatzea gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna eta sektorearen gaztetzea, landa eremuan eredu sozial eta ekonomikoaren iraunkortasuna bermatzeko.
- Datuak biltzea, arreta jornalariaren kolektiboan jarrita: nor diren, zenbat diren, zein den haien ongizatea, nola hobetu haien egoera...
- Jornalariaren kolektiboaren autoantolaketa handiagoa, bai erakunde propioetan bai lehendik dauden sindikatuen bidez.
- Jornalariaren kontratazioa sustatzea, modu egonkorrean eta baldintza hobeeetan, eta pertsona horiek nekazaritzako hainbat lan egin ahal izatea hainbat ustiategitan.



Photo by Markus Spiske on Unsplash

## BIZITZAREN HISTORIA: JUAN CARLOS HERNÁNDEZ



Juan Carlos Hernándezek utzitako irudia

Juan Carlos Hernández adin ertaineko gizona da, Bilbotik etorria, baina gaur egun Oionen bizi da, Arabako landa ingurunean.

16 urte besterik ez zituela sartu zen lan merkatuan, eta hainbat arlotan egin du lan: mezularitzan eta paketerian, catering banaketan, upategietan traktorista eta jornalari gisa, eta hainbat egin-kizun bete ditu, hala nola, esperguratzea, desnietatzea, kimatzea, etab.

Gaur egun Juan Carlos familiaren etxebizitzan bizi da eta lan bila dabil, pandemiaren ondorioz zaila bada ere. Adierazi du mugikortasuna mugatzeak asko zaildu diola enplegu berri bat aurkitzeko aukera, eraginkorra iruditzen baitzaio curriculuma aurrez aurre entregatzea, online bidaltzeaz gain.

Gainera, boluntario gisa laguntzen die indarkeria matxisten biktima diren emakumeei, duela 18 urtetik, eta sentsibilitate handiagoa barneratu du genero arrakalarekiko eta desberdintasun egoerekiko. Bere esperientziatik, uste du oso beharrezkoa dela hezkidetzan oinarrituta lan egitea eta herritarrak sentsibilizatzea gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunen inguruan, esparru guztietan.

Era berean, ezinbestekotzat jotzen du landa eremua eta ingurumena zaintzeko sentsibilitate handiagoa hartzea, bai eta bertan lan egiten duten pertsonen egoera hobetzea ere. Adierazi du gustura sentitu dela sektorean lan egiten, baina landa lana lan gogorra dela uste du, eta, batzuetan, kanpoko faktoreen mende dagoela bere soldata, klimaren mende, esate baterako.

Izan ere, Juan Carlosek uste du erronka handia dela enplegarritasuna, jornalariaren lanbidea oso lotuta baitago mahats bilketen behin-behinekotasunarekin, eta horrek ezegonkortasun handia eragiten du lan egiteko orduan.

Bere esperientzianikusi du gero eta pertsona migratu gehiago direla Euskadin jornalari gisa lan egiten dutenak, eta egoera irregularrean dauden sasoiakako langile asko ezagutu ditu. Pertsona horietako askok oso prestakuntza handia zuten, eta, hala ere, lan eta bizigarritasun prekarietate handiko egoeran zeuden. Egoera horrek kolektibo osoa hartzen duela esan du: *“mahats biltzaleek autoan lo egin behar izan dute mahats bilketa lanaldi baten ondoren” [...] “Ni ere beharrean egon izan naiz, eta niri, landan lan eginez, lan ordua 1 €-tan atera zait eta oso lan gogorra eginez. Baina beharrak behartu egiten du”.*

Zehazki, “destajuko” lanaz ari da; izan ere, lan kontrataziorako modu horretan, egindako lanaren kontzeptuan kobratzen da eta ez erabilitako denboraren kontzeptuan. *“Ez zait bidezkoa iruditzen, urte batzuetan mahats asko dagoelako, baina beste urte batzuetan ez dago hainbeste mahats, mahatsak ez du pisurik, eta orduan lan pila bat egin dezakezu eta sosik ez atera”.* Gainera, bere esperientzian, Juan Carlosek dio aspaldian ez zuela ikusten kontratazio eredu hori, eta 2020an berriro ikusi duela.

Azkenik, etorkizun alternatibo ezari garelara, landa eremuan enplegarritasun handiagoa eta sektoreko lan baldintzak hobetzea eskatzen du, batez ere lan egonkortasun handiagoa, egonkortasun ekonomikoarekin loturik.







# 4

## EMAKUMEAK ANIZTASUNEAN, EMAKUME MIGRATUAK

*"Gizartearen parte hartzea funtsezkoa da, baina zerbaiten parte sentitzen zarenean bakarrik gertatzen da hori, hor dagoenak hiritar gisa eragiten dizula eta hori zurea ere badela sentitzen duzunean"*

(Francy Fonseca, Emakumeak Aniztasunean elkartea).

Emakumeak Aniztasunean hainbat nazionalitatetako emakume taldea da, eta 2007an sortu zen, migrazio proiektuei ekin zietenean, atzean utzi zituzten harremanak berriro osatzeko topaketa talde bat izateko.

Emakumeen eskubideen defentsan lan egiten dute -larruazalaren kolorea, erlijioa edo jaioterria kontuan hartu gabe-, etengabe berritzen ari diren sei lerroren bidez: ahal-



Mujeres en la Diversidad elkarteak utzitako irudia





duntzearen alde egitea, prestakuntzan sinestea hobekuntza pertsonal eta profesionalerako elementu gisa, aurreiritziei eta estereotipoei aurre egitea, genero indarkeria errotik kentzeko borroka egitea, lotura sareak eratzea eta aisialdiaren garrantzia aitortzea.

### Emakume migratuen egoera:

- Atzerriko 241.724 lagun bizi dira EAEn, Euskadiko biztanleriaren % 10,9. 119.576 lagun Bizkaian, 119.576 Gipuzkoan eta 42.671 Araban.
- Maroko, Kolonbia eta Errumania dira EAEn bizi diren migratzaileen lehen hiru jatorriak.
- Emakume migratuak (% 52,4) gizonezkoak baino gehiago dira ehunekoetan, eta jatorri amerikarreko emakumeak dira ugariena: 75.900 (guztizkoaren % 59,8).
- Euskadin bizi diren atzerriko nazionalitateko biztanleen langabezia tasa % 28,1ekoa da, eta espainiar nazionalitateko biztanleena, berriz, % 7,6koa.
- EAEn lan esperientzia duten etorkinen % 26,7k adierazi du betetzen duten lanpostua bere prestakuntza mailaren azpitik egoten dela.
- Euskadin ikusten eta onartzen da diskriminazioa dagoela, eta tratu eta aukera desberdintasun handiagoa dagoela alokairuko etxebizitza eskuratzeko orduan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko bi herritarretatik batek uste du jatorri kultural eta/edo etniko desberdina izatea diskriminaziorako arrazoi nagusia dela.
- Jatorri etnikoagatiko diskriminazioari dagokionez, langabezian dauden pertsonak dira kaltetuena, neurri handiagoan Errumaniatik, Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta Magrebetik datozenak.



Mujeres en la Diversidad elkarteak utzitako irudia



Mujeres en la Diversidad elkarteak utzitako irudia

Migrazioak, EAEko guztizko biztanleria bolumenari eusteaz gain, zahartutako gizartea hein batean gaztetzen ere lagundu du. Horrez gain, kultura aniztasun handia ekarri du, eta gizarteei balioa erarsten die.

Gaur egun, pertsona migratuek ez dituzte eskubide guztiak bermatuta, hein handi batean Atzerriarren Legearen ondorioz. Izan ere, lege horrek egiturazko murrizketak ezartzen ditu, imaginario kolektiboan errotuz doazenak, eta beste esparru batzuetara pasatzen dira, horietan aurreiritziak eta estereotipoak baitira pertsonen arteko desberdintasunen oinarri.

Askotarikoak dira migrazioen arrazoiak. Horietako batzuek lotura zuzena dute zenbait herrialdeetatik baliabide naturalak modu arduragabeen ateratzearekin, ia beti multinazional handien bidez. Beste kasu batzuetan, gerren, eztabaida politikoen, geopolitikaren, ekoizpen nazionaleri eragiten dieten nazioarteko akordio ekonomikoen, pobrezia- eta ustelkeriaren ondorioz, barne migrazioak egiten dira herrietatik hiri handienetara, eta agian nazioarteko migrazioa ere. Kasu batzuetan, senideen arteko maileguetatik edo lukurreriatik lortutako baliabideekin, eta, emakumeen kasuan, baita pertsonen trafiko sareen bidez ere.

Baina migrazioak ez dira ausazkoak. EAEren kasuan, ez da kasualitatea pertsona migratu gehienak emakumeak izatea eta gehienak amerikarrak izatea, bereziki Erdialdeko Amerikakoak eta Hegoamerikakoak. Zaintza kate prekarizatuak hegoaldeko emakumeak harrapatu ditu, eta, gaur egun, duten prestakuntza eta/edo gaitasunak alde batera utzita, arlo pribatuan zaintza eta in-tendentzia lanak egiteko etortzen dira oraindik ere.

Legearen ondoriozko migratuen **egoera administratiboari** dagokionez, babesgabetasun eta prekaritate larria eragiten die egoera irregularrean daudenei edo gelditzen direnei. Horrekin batera, beste hainbat arrazoiengatik, hauxe da, jatorrizko gizartetik deserrotzeko prozesua, hizkuntza gutxi ezagutzea, jarraibide kultural berriak onartzea, lan merkatuan sartzeko zailtasunak, aurreiritziak eta estereotipoak, bide zaila dute egiteko beste jatorri batzuetatik datozenek. Eta emakume migratuen kasuan, generoaren berezko desberdintasunak gehitu behar zaizkie inguruabar orokor horiei. Diskriminazio pila: emakumea izateagatik, migratzeagatik eta egoera irregularrean egoteagatik.

**Enpleguari** dagokionez, Ikuspegiren arabera (2020), lan egituraren beheko mailetan eta sektore prekarioenetan daude migratutako pertsonak, eta prekariedade eta langabezia tasa handiagoak dituzte. Alde handiak daude legezko egoeraren, jatorriaren, sexuaren, egonaldiaren eta ikasketa mailaren arabera.

Ikuspegik egindako datu azterketak (2020) erakusten du atzerritarrek lan merkatuan duten parte hartzea aldatu egiten dela jatorriaren arabera, eta errealitate batzuk bereiz daitezke:

- Alde batetik, langabezia tasa oso kezagarriak dituzte Magrebeko eta Saharaz hegoaldeko Afrikako kolektiboek, % 50etik gorakoak, eta, Saharaz hegoaldeko kolektiboen kasuan, gainera, lan prekariedadearen tasa % 60tik gorakoa da.
- Bestalde, Latinoamerikako nazionalitateek langabezia tasa txikiagoa dute, lan merkatuan sartzeko aukera gehiago dituztelako, baina enplegu prekarioaren bidez (kontraturik gabeko lanpostuen ehuneko handiarekin), batez ere etxeko lanetan.
- Azkenik, EBko biztanleek langabezia tasa handia dute, baina lan prekariedade txikia; Txinako kolektiboaren kasuan, berriz, ia guztiek dute enplegua, eta % 5,3koa da langabezia tasa.

Enplegu erregularra lortzeko zailtasunak Atzerritarren Legeak ezartzen ditu, baina egia da pertsona migratu askok lan poltsa informalak betetzen dituztela, zaintzarekin eta etxeko lanekin oso lotuta daudenak.

Era berean, esparru pribatuko zaintza lanen ondorioz, emakume migratu askok beren gain hartu dute karga sozial hori, beren seme-alaben edo mendeko ahaideen zaintza beste emakume batzuen esku utzita ere batzuetan. Eta COVID-19ren ondorioz oso garbi geratu da sektore horretan lan bermerik ez dagoela eta langileen eskubideak ez direla aintzat hartzen.

Pandemiak modu desberdinean eragin die emakume eta gizon migratuei, bai eta egoera erregularrean edo irregularrean daudenei ere. Lan merkatuan sartzeari eta gizarte segurantzako alde buruzko datuek erakusten dutenez, pertsona migratuek betetzen dituzte lanpostu ahulenak, eta, beraz, haiek izan dira COVID-19k eragindako krisiak lehenbizi kaltetu dituenak. Are gehiago etxeko lanetan diharduten emakume migratuak; izan ere, nahiz eta dokumentazioa behar bezala eduki, askok ez dute kontraturik, eta horregatik ez dute bermerik izan beren lana galtzeko edo pandemia globalaren ondorioak arintzeko gobernuaren laguntzak eskuratzeko.

Era berean, prekariedade handitu egin da zaintza lanetan; izan ere, emakume migratu ugari aritu dira lan horitan, gutxieneko eskubideak bermaturik izan gabe.

Garrantzitsua da, halaber, NBEak edo bermeak eskuratzeko zailtasunak aipatzea, egin beharreko lanak segurtasunez berrantolatzeko orduan. Badira emakumeak eguneko langile gisa aritzen zirenak eta internoak izatea proposatu zitzaizkienak, zaintzen zutenaren osasuna arriskuan ez jartzeko, eta negoziatzeko aukerarik gabe: edo hori onartu edo lanpostua galduko zuten.

Alde horretatik, **osasunaren** arloa da pertsona migratuek beren eskubideak urratuak dituzten beste alderdietako bat, ikuspegi globaletik begiratuta. 2016. urtean jada, *Migrazioa eta osasuna Espainian* bezalako txostenek, Epidemiologia eta Osasun Publikoko Sareko Ikerketa Biomedikoaren Zentroko (CIBERESP) ikertzaileek egina, zenbait hobekuntza gomendatu zituzten osasun laguntzan, osasun okupazionalan, osasun mentalean, gaixotasun infekzioso eta kronikoetan eta sexu eta ugalketa osasunean.



Hala ere, 16/2012 Errege Dekretuak ezarritakoak bezalako araudiekin (eta 7/2018 Errege Dekretuak ez du erabat lehengoratu), milaka lagun geratu ziren sanitate publikotik kanpo. Eta halaxe jarraitzen dute oraindik ere familia berrelkartzeagatik edo EBko herritarren senitarteko gisa bizi-leku baimena duten pertsonak, Justizia Auzitegi Gorenak berrelkartutako senide baten arretaren aurkako epaia eman ondoren.

Epai horrek *"argi uzten du unibertsaltasunari buruzko egungo araudiak ez duela erabat bermatzen Espainian bizi diren pertsona atzerritar guztien babes (..). Erabaki horrek areagotu egiten du Espainian legez bildutako pertsonen osasun bazterketa, eta bizkarra ematen die Nazio Batuen eta Europako Kontseiluaren nazioarteko babes mekanismoen gomendioei"*, dio Marta Mendiolak (2019), Espainiako Amnistia Internazionalerako eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen ardura-dunak.

Azkenik, ezin dugu alde batera utzi pertsona migratuek etxebizitza bat izateari begira bizi duten bazterketa. Agian horixe da desberdintasun izugarriaren bat, jatorriagatik aurreiritzietan oinarritzen dena. Batez ere, alokairuko etxebizitza eskuratzeari ari gara. Izan ere, migratutako biztanleek, etxegabetzeak eta beren etxeak ordaintzeko zailtasunak (jabetzan nahiz errentan) izateaz gain, trabak eta diskriminazioak jasan behar dituzte higiezin agentziek eskaintzen dituzten alokairuko etxebizitzaren merkatuarekin loturik. Krisiarekin eta aurreiritziekin lotutako arazoa da hori eta are gehiago zailtzen du pertsona migratuek etxebizitzarekiko duten egoera larria.

Horrez gain, pertsona migratuek baldintza gehiago bete behar dituzte etxebizitza eskuratzeko, eta, kasu askotan, etxebizitza bat alokatzeko beharrezkoa ez den dokumentazioa eta informazioa ere eskatzen zaizkie, hala nola aurrekari penalak, etxebizitzan bizi behar duten pertsona guztien nazionalitateaz galdetzea, egoera zibila, adingabeak eta abar. Hori guztia biztanle migratzaileekin lotu ohi diren irudi estereotipatuaren eta haien bizitzeko espazioaren erabilerarekin lotua dago, eta ez zaie nazionalerik eskatzen.

Egoera horrek guztiak bizitegi bereizketa bultzatzen du periferiarantz, hiriburuetako gerrikoko herrietarantz edo eremu degradatuetarantz. SOS Arrazakeriak egindako txosten batzuek ere baieztatzen dute higiezinaren parke segmentatua dagoela, eta, bertan, batez ere Europako Erki-degokoak ez diren atzerritarrei eskaintzen zaizkiela etxebizitza eskasak edo kalitate txikiak dutenak.

### **Eskaera nagusiak:**

- Atzerritarren legea indargabetzea.
- Pertsona guztien oinarriko beharrak asetzen direla bermatzea, haien egoera administratiboa edozein dela ere.
- Lan merkatuan baldintza berdinetan sartzea bultzatzea.
  - Europako Batasunetik kanpo eskuratutako titulazio akademikoa homologatzeko prozesua erraztea.
- Diskriminazioaren eta xenofobiaren aurkako politikak hobetzea, xede publikotzat erakundeak eta herritarrak hartuta.
- Paternalismoa eta asistentzialismoa desagerraraztea herrialdeen arteko harremanetan.



## BIZITZAREN HISTORIA: CLEMENTINE POUATOU

Clementine Pouatouk utzitako irudia



Clementine Pouatou adin ertaineko emakumea da, kamerundarra, bi seme-alaba ditu eta Euskadin bizi da duela 10 urte baino gehiagotik.

Euskadira iritsi zenean, hitzaldiak eman zituen Kamerun eta bere kultura ezagutzera emateko. Horren ondorioz, konturatu zen euskal biztanleek ez zutela afrikar kontinentea ezagutzen. Horregatik, proiektu propio bati ekitea erabaki zuen: Solidaridad Euskalmon elkarte, herritarrak Afrikari, eta, bereziki, Kameruni buruz sensibilizatzeko. *"Afrika eta, bereziki, Kamerun, Euskadira hurbiltzen saiatuko gara"*.

Clementine gehien harritu zuen gauzetako bat izan zen Euskadiko pertsona batzuek Afrika herrialde bakartzat jotzen zutela jakitea. *"Min ematen du pentsatzen duzunean nik nire herrialdean ikasle gisa Europako historia eta hezkuntza ezagutzen nituela: izan ere, nik Europako historia eta geografia ezagutzen baditut, Europak zergatik ez ditu ezagutzen Afrikako historia eta geografia?"*. Horregatik, oso garrantzitsutzat jo zuen sensibilizazioa oinarri hartuta lan egitea, pertsona migratuekiko sortzen diren orokortzeak, aurreiritziak eta estereotipoak hausteko.

Estereotipo horiek orokorrean eragiten dute pertsona migratuen bizitzan, baina Clementinek, zehazki, enpleguan duen eraginaz hitz egin digu. Bere ustez, pertsona bakoitza dituen ezaugarriengatik eta gaitasunengatik baloratu beharko litzateke, aurreiritziak edo estereotipoak aintzat hartu gabe: *"ez da mugatu behar emakumea, ama, beltza... izatera"*. Pertsonak ez dira duten jatorriaren, generoaren edo egoera fisikoaren arabera ikusi behar, garrantzitsuena pertsonen burua baita, eta juzgatu aurretik ezagutu egin behar dira.

Horrez gain, lan merkatuan sartzeko interes handiko beste puntu batere jarri du mahai gainean: jatorrian lortutako titulazioa aintzatestea. Clementineren ustez, *"urrats bat egin behar da teoriaren eta praktikaren artean"*. Gaur egun, dauden araudi gogorrak dira pertsona migratuen balioak eta talentuak aintzat har daitezen zailtzen ari direnak. *"la ezinezkoa da Afrikako unibertsitate edo ikasketa zentro bateko titulu bat homologatzea. Horrek ere diskriminazioa eragiten du"* adierazi du.

Clementinek bere burua mentalitate positiboko pertsonatzat duen arren, pandemiak gizartean eragin handia izan duela, eta geneukan gutxieneko hori suntsitu duela adierazi du. Hala ere, bihar hobe izatea espero du, bizitakoa ikasteko baliagarria izatea, eta bizitza beste modu batean ikusten hastea: *"bizitzaren beste irakaskuntza bat, migrazioa bezala"*.

Ingurumena zaintzea garrantzi handiko kontua da Clementinerentzat. Bere ustez, horrek ematen digu bizia, eta guztion artean zaintzen ez badugu, gehiegizko kontsumoaren ondorioz, azkenean "ito" egingo gara. Uste du naturak ematen diguna baloratu egin behar dugula, gehiegizko kontsumoa eta ustiapena saihestuz.

Azkenik, aniztasunari buruzko aldarrikapena egin du Clementinek, egungo gizarteeri aberastasuna ekartzen dien aukera gisa ikusten baitu. Bere iritziz, ekitatearen bidetik jarraitu behar dute gizarteek eta baliabideak zuzen banatu behar dituzte herrialdeen artean.





# 5 GEHITU, LGTB+ KOMUNITATEAREN KASUA

*"Ohitu eta egokitu zaitezke, eta ez borrokatu, edo borroka egin dezakezu eta ez onartu [...] mundu guztiak aukera berdinak izan beharko lituzke".*

(Maitane Arzalluz, GEHITUko teknikaria).

**GEHITU, Euskal Autonomia Erkidegoko Gai, Lesbiana, Trans, Bisexual eta Intersexualen Elkarteak**, LGTB+ kolektiboetako pertsonen duintasunerako, berdintasunerako eta sexu-afektibitatearen garapen aserako oinarritzko eskubideen erabateko onarpena lortzeko eta sexu orientazioagatik edo genero identitateagatik legezko eta gizarteko diskriminazio oro amaitzeko helburua duten pertsonen osatuta dago.

GEHITUK jarduerak egiten ditu eta ekimenak sustatzen ditu LGTB+ komunitatearen eskubideak defendatzeko erabakigarriak diren espazioetan, bereziki komunikabideetan, erakunde politikoen aurrean eta hezkuntzaren esparruan.



GEHITU-k utzitako irudia





### Komunitatearen egoera:

- NBEko 69 estatu kidek sexu bereko pertsona helduen artean adostutako sexu ekintzak zigortzen jarraitzen dute.
- 2019an, sexu orientazioa eta genero identitatea izan ziren Espainian gorroto delituen hirugarren arrazoia, 259 salaketa jaso baitziren.
- LGTB+ komunitatearen aurkako indarkerien % 60 eta % 80 artean ez dira salatzen.
- Nabarmen egin du gora Berdinduren zerbitzura jo duten ikastetxeen kopuruak. Sexu eta genero aniztasunarekin zerikusia duten gaietan informatzeko eta arreta emateko euskal zerbitzu publikoa da Berdindu.
- 2020an, sexu identitateari eta/edo genero identitateari buruzko eskaerak ugaritu egin dira Euskadin, bereziki trans\* gazteen artean.

LGBT+ komunitatea oso zabala eta heterogeneoa da, eta premia eta eskaera oso desberdinak dituzte komunitatea osatzen duten kolektiboek.

Argi dago oraindik ere ezjakintasun handia eta aurreiritzi ugari daudela komunitate horren errealitate desberdinen inguruan. Horregatik, garrantzi berezia hartzen du hezkuntzako 4. GJHak, aniztasun afektibo-sexualak eta generokoak ikusarazteko aliatutzat hartuta.

LGBT+ kolektiboen aukerak pertsona normatiboan baino txikiagoak dira, besteak beste, enplegua eta/edo etxebizitza eskuratzeko aukerak eta osasun sisteman sartzeko aukerak, baina indarkeria edo diskriminazio egoerak jasateko arrisku handiagoa dute. Segur aski, komunitatean bertan eskubideen urraketarik nabarmenenatrans\* aterkipean dauden pertsonetikoa izango da. Adibidez, LGB siglen kasuan, hau da, sexu-orientazioari buruz ari garenean, errazagoa izan daiteke lana lortzea, baina trans\* pertsonen zailtasun handiagoak dituzte enplegarritasunari eta onarpenari dagokienez.

Era berean, LGTB+ kolektiboekiko bereizkeria egoerak hainbat eratakoak izan daitezke, eta indarkeria mota desberdinetakoak izan daitezke: sinbolikoa, egiturazkoa, zuzeneko... (García, 2020).

COVID-19k eragindako pandemiaren ondorioz etxean egindako konfinamenduan, kolektiboko pertsona kaltetuenak euren etxean onartu gabeko adingabeak izango dira segur aski, beren nor-tasuna onartzen ez duten pertsonekin bakarrik bizi eta izan behar izan baitute harremana.

Nahiz eta pandemiak agerian utzi dituen kolektiboak aurrean dituen zailtasunak eta diskriminazioak, arestian aipatutako adierazleetan ikus daitekeen bezala, 2019an jada, COVID-19k eragindako krisiaren aurretik, genero identitatea eta sexu orientazioa ziren Espainian gorroto delituen arrazoi nagusietako bat.

GEHITUK lan egiten du diskriminazio egoera horiek hausteko eta kolektiboko pertsona guztiek aukera berdina izan ditzaten, desberdintasunak eta aniztasuna onartuz eta errespetatuz.



### **Eskaera nagusiak:**

- Borroka egin behar dugu denok berdinak izan gaitezen gure desberdintasunekin eta aniztasunean, baina eskubide berberekin betiere.
- Ezinbestekoa da gorroto delituak agerian uzten jarraitzea.
- Funtsezkoa da generoen arteko berdintasuna, bi genero baino gehiago identifikatzean oinarritua.
- Gizarte feminista, plurala, aldarrikatzea.
- Beharrezkoa da gazteekin lan egitea. Ezinbestekoa da gazteak sexu aniztasunean heztea, errealitatea zein den jakin dezaten eta irizpidez eta askatasunez erabaki ahal izan dezaten.



GEHITU-k utzitako irudia



## BIZITZAREN HISTORIA: MIKEL LOPEZ

---



Mikel Lopezek utzitako irudia

Mikel Lopez administrari laguntzailea da Donostiako ikastetxe itundu batean. Ordizian bizi da eta bere zaletasunen artean mendira joatea eta musika klasikoa nabarmentzen dira. Bere bizitzari buruz, zoriontsu dela dio, eta beti oso argi izan duela bere sexu orientazioa.

*"Ikusi nuen nire bidea, esan dezagun inguruko jendearena baino konplikatuxeagoa izango zela, baina tira, hain argi neukan, eta hain gustura sentitzen nintzen nire azalean, non ikusi bainuen borrokatzea eta nire bizitza defendatzea zela kontua".*

Aitortu du nahiko barneratua sentitu dela bere ingurune pertsonalean eta profesionalean, nerabezaroan eta gaztaroan gertaera bakanen bat izan badu ere. Hala ere, onartzen du LGTB+ komunitateko pertsona askok beren bizitzan arazo asko izan dituztela kolektiboko kide izateagatik. Beharrezkotzat jotzen du kolektiboak jasaten dituen oztopoak desagertzea eta jendea, oro har, pertsona guztiak errespetatzeko gaitatea, haien sexu orientazioa edo genero identitatea edozein dela ere.


Jabetzen da pertsona guztiok dugun planeta zaintzeko eta babesteko erantzukizunaz, eta, horregatik, garrantzi handiko kontua dela iruditzen zaio.

*"Horixe da utziko dugun herentzia, eta mundua ahaztuegia dagoela iruditzen zaidanez, uste dut oraindik garaiz gabiltzala ingurumena birpentsatzeko, egunero gure ekintzekin zer egiten dugun pentsatzeko, eta, batez ere, daukagun bitarteko bakarra dela, bertan bizi garela eta utziko duguna dela pentsatzeko".*

Azkenik, etorkizun alternatiboez ari garela, Mikelek positiboan pentsatzen du, eta berdintasuneko gizarte modernoekin egiten du amets, jendeak elkar errespetatzen duen gizartea, inolako diskriminaziorik gabe, ez azalaren koloreagatik, ez sexu orientazioagatik... *"gizonak eta emakumeak berdinak izango gara, berdinak garelako, heteroak, homoak, biseksualak, transak, interrak, berdinak izango gara, berdinak garelako. Eta azkenean definitzen gaituena, nire ustez, besteenganako sentitzen duguna da, eta hortxe dago errespetua".*



# AZTERKETAREN EMAITZAK



Hurrengo atalean, aztertutako kasuetan parte hartu duten pertsonen diskurtsoen bidez lortutako emaitzak garatuko ditugu, bai eta erakundeek emandako datuak ere. Informazio hori laburbildu eta 2030 Agendarekin eta taldeentzako eta kolektiboentzako helburu garrantzitsuenekin kontrastatuko dugu.

2030 Agenda bost ardatzen inguruan egituratzen da, "5P" izenekoak: **pertsonak (people), planeta (planet), oparotasuna (prosperity), bakea (peace) eta aliantzak (partnership)**. Bost arlo horiek garrantzi handia dute garapen iraunkorrerako, maila guztietan. Bereziki, beharrezkotzat jotzen da pertsonen eta planetaren arteko harremana indartzea eta zaintzea, Agendak proposatutako helburuak eta xedeak betetzeko.

## PERTSONEN ETA PLANETAREN ARTEKO HARREMANA

2030 Agendak **ingurumenaren iraunkortasunarekin lotutako 7 helburu ditu**: ura, energia, klima aldaketa, hiri eta komunitate iraunkorrak, ekoizpen eta kontsumo arduratsuak, itsasoko ekosistemak eta lehorrekoak. Gainera, garapen gaiak ingurumen gaiekin lotzen ditu nagusiki. Bateratze hori positiboa da; izan ere, horrek aukera ematen du bi agenda paralelo izateak berekin ekarriko lituzkeen helburuen zatikatzea eta ahaleginen sakabanatzea saihesteko, eta, gainera, biak lotuz eta biei modu bateratuan ekinez, biek batera egin dezakete aurrera.

Talde eta kolektibo desberdinen ikuspegia, kasu bakoitzean berezia bada ere, kolektiboko pertsonen eta ingurumenaren arteko harremanaz galdetzean, zenbait kontsonantzia aurkitu ditugu:

- **Belaunaldi berriek** planeta eta ingurumena zaintzeko beharraz **kontzientziatutzat eta bereziki sensibilizatutzat** dituzte euren buruak, eta gai hori arian-arian txertatzen ari da Euskadiko egungo hezkuntza sisteman.
- Zaurgarritasun egoerak bizi dituzten pertsonak, eta, bereziki, arautegian identifikatuta eta islatuta sentitzen ez diren pertsonak, **aurrez ezarritako zenbait gai birplanteatu egiten dituzte, eta hausnarketa alternatiboak sortzen dituzte**, gizartean, ingurumenean eta abarretan sensibilitate handiagoa lortzeko bidea ireki dezaketenak.
- **Nekazaritza eta elikagai sektoreak**, oro har, **funtsezko irtenbideak eskaintzen ditu** landa lurraldeen garapen iraunkorrerako, eta ezinbestekoak dira, munduan gosea eta pobrezia desagerrarazteko ez ezik, biodibertsitatea babesteko eta klima aldaketaren aurka borrokatzeko ere.
- Oro har, **pertsonen eta planetaren arteko harremanean kontzientzia handiagoa** izateko beharra azpimarratu da, eta giza eskubideen defentsa kontutzat hartzen da harreman hori.
- **Gizartea eraldatzeko hezkuntza** beharrezkoa da kontsumo arduratsuen alde egiten jarraitzeko eta etorkizun iraunkorra ziurtatzeko, gaurtik hasita.



# DESBERDINTASUNAK. BEGIRADA BAT INTERSEKZIONALITATEAREN ETA ANIZTASUNAREN IKUSPEGIETATIK

2030 Agendak, **10. GJH (Desberdintasunak murriztea)** bidez zehazki, sexu, adin, ezgaitasun, arraza, etnia edo erlijio arrazoiengatik sortutako desberdintasunak murriztean jartzen du arreta. Horretarako, politika eta legeria egokiak har daitezkeen bultzatzen du. Helburu horren xedeetako batzuk dira aukera berdintasuna bermatzea (10.3) eta migrazioak eta mugikortasuna erraztea migrazio politiken bidez (10.7).

Helburu hori beteko dela bermatzeko, lehen ikusi dugun bezala, garrantzitsua da ulertzea **ko-  
lektibo eta talde sozialak ez direla uniformeak, identitate heterogeneoak eta gainjarriak dituzte-  
la**, bizitzan zehar aldatu ere egin daitezkeenak, eta diskriminazio mota desberdinen eraginpean  
egon daitezkeela genero, jatorri, etnia, adin, egoera sozioekonomiko eta abarren ondorioz. Hau  
da, garrantzitsua da pertsona eta talde bakoitzaren interseksionalitatea ulertzea.

Taldean eta kolektiboen barruan gertatzen diren elkarguneei buruz galdetzean, diskurtso guztiak  
**generoa eta jatorria edo etnia dituzte ardatz**, eta bi horiek dira talde kaltetuentzat diskriminazio  
faktore nagusiak. Bigarrenik, **egoera sozioekonomikoa** nabarmentzen da, eta diskurtso gehiene-  
tan aipatu da hori ere oztopoez eta diskriminazio arrazoiez hitz egitean. Hirugarrenik, talde ba-  
koitzean berariazkoagoak diren beste batzuk identifikatu dira, hala nola adina, sexu eta genero  
identitatea, erlijioa eta hizkuntza edo dibertsitate funtzionala. Horiek ere funtsezko ezaugarritzat  
jotzen dira, eta talde kaltetu bateko edo besteko izatearekin lotuta daude.

Desberdintasun horiek, elikatzearekin batera, **aurreiritziak eta estereotipoak** sortzen dituzte, eta  
horiek, hurrengo puntuetan aztertuko dugun bezala, mugatzaileak dira baliabideak eskuratzeko,  
beharrak estaltzeko eta pertsonak garatzeko.

Hala ere, interseksionalitateak, aldi berean, **gaur egungo gizarteetan dagoen pluraltasunaz eta  
aniztasunaz** ohartarazten gaitu: aniztasun kulturala, generokoa eta afektibo-sexuala, belaunaldi-  
koa, hizkuntzako, funtzionala... Horiek guztiak hortxe daude eta guztiok ikusi eta ezagutu behar  
ditugu, aurrez ditugun ideiak desikasteko eta aurreiritziak eta estereotipoak desegiteko.

Hain zuzen ere, (des)jiskuntza hori bermatzeko eta horri eusteko, funtsezko gai batzuk azaldu  
dituzte elkarrizketatutako pertsonak. Alde batetik, eremu sozial eta politikoetatik aniztasunei bu-  
ruz hitz egiteko beharra azaldu da, eta sentibilizatzeko beharra, pertsona guztiak askotarikoak  
garela eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, diskriminazioa eragiten duten aldeez aurrez pen-  
tsatutako ideiak sor ditzaketen gaiak zeharkatzen gaituztela ulertuta. Horretarako, ezinbestekoa  
da **aurreiritzi horiek gehien pairatzen dituzten pertsonak espazio publikoetan eta parte hartzeko  
guneetan egotea**, euren errealitatea eta proposamenak ezagutzera emateko.



Bestalde, beharrezkoa da **kaltetutako taldeak benetan barneratzea**. Elkarreetan, erakundeetan eta administrazio publikoetan, honako hauek bultzatu behar dira: heziketa eta berreziketa programak sustatu eta laguntzeko gaitasuna, sentsibilizazio kanpainak (kaltetutako taldeetako pertsonen egindakoak eta aurrera eramandakoak), euskal taldeen eta kolektiboen benetako egoerari buruzko azterlanak, bereizi gabeko jarduerak egitea eta gizarte osoa partaide bihurtzen saiatzea... Norbanako gisa, autokritikatik jarduteko gaitasuna ere adierazgarria da, egunero sor daitezkeen diskriminazio egoerak zalantzan jarriz eta salatuz. Horren harira, elkarriketatutako pertsonen borondate politikoaren garrantziaz hitz egiten dute, erantzukizun indibidualak ulertuta, baina baita erantzukizun horiek politika publikoekin lotuta egon behar dutela ere, pertsonen beharren eta proposamenen inguruko politikak sortuz, sistemak kaltetutako pertsonen eta taldeen artea berezia eskainiz.

## GENERO BERDINTASUNA

Aurreko puntuan, desberdintasunei buruz hitz egitean, **generoa funtsezko faktoretzat hartu da pertsona guztientzako benetako aukera berdintasuna lortzeko**.

Genero desberdintasunak garapen iraunkorraren dimentsio guztietan ageri direnez, **ahalegin zehatzak eta integralak egin behar dira esparru guztietan genero berdintasuna egia bihurtzeko**. Kategoria honetan gai horretan sakontzen da, kontuan hartuz azterlanaren zeharkako ildo delat eta ikerketaren beste galdera batzuetatik ere lantzen delat.

Genero berdintasuna, oinarrizko giza eskubidea izateaz gain, ezinbestekotzat jotzen da gizarte baketsuak eta modu iraunkorrean garatzeko gai direnak lortzeko.

*“Genero berdintasuna justizia sozialaren eta giza eskubideen ikuspegi partekatua da. Gizateria osoak du jarduteko erantzukizuna, eta, bereziki, gobernuek, eskubideen bermatzaile nagusiak baitira. Nazioan, eskualdean eta munduan dauden aukera guztiak aprobetxatu behar ditugu, eta beste bultzada bat eman genero berdintasunaren helburuari, emakumeen ahalduntzeari eta emakumeen eta nesken giza eskubideen egikaritzeari”* (NBE Emakumeak, 2014).

2030 Agendak nazioarteko gizartearen konpromisoa bultzatzen du, genero berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea lortzeko, **5.GJHrenbidez (Genero berdintasuna)**, zuzenean, baita beste batzuetan ere, sexuaren arabera berezitateko xedeen bidez.

Azterketa honetan parte hartu duten taldeek **erronka global** gisa identifikatu dute genero desberdintasuna, eta munduko herrialde guztiak inplikatzeko dituzte, eta beharrezkoa da maila globalean eta tokian lan egitea.

Zehazki, AMUGE eta Emakumeak Aniztasunean, berdintasuna lor dadin ahalegintzen diren emakume elkarteak biak ere, emakume ijitoen eta migratuen beharrei eta aldarrikapenei erantzuna emateko egiten duten lanetik, bat datoz nabarmentzean garrantzitsua delat pertsona bakoitzak



bere feminismoa, kontzientzia hartzea eta ahalduntze prozesua bere lekutik eta bere kulturatik bizitzea. Bakoitzaren prozesuak ez epaitzeak eta errespetatzeak duen garrantzia azpimarratu dute halaber.

Era berean, genero desberdintasunari aurre egiteko **erronka handienetako bat** da, **hain zuzen ere, desberdintasun egoerez jabetzea eta egoera horiek aintzat hartzea**, eta hori lehen urratsetako bat da gizartea eraldatzeko, feministagoa, inklusiboagoa eta arrazismoaren aurkako izan dadin. Puntu honetan, LGTB+ komunitateak egindako ohar esanguratsu bat ere aipatu behar da; LGTB+ komunitateak hausnarketa egiten du genero sistema bitarra (des)eraikitzeari buruz, bi genero identitate bakar eta absolutu bakarrik hartzen baitira kontuan: maskulinoa eta femeninoa. Baina, egia esan, badira pertsona ez bitarrak eta beste genero batzuetakoak ere, eta horiei ere desberdintasuna eragiten zaie genero arrazoiengatik.

Azkenik, genero desberdintasunei buruz hitz egitean, zenbait diskurtsok arreta berezia jarri dute **lan arloko genero arrakalan**. Aztertutako kasuetan adierazle zehatzen bidez sakontzen bada ere, esanguratsua da talde kaltetuek bi kontzepturi buruz egin duten aipamena. Alde batetik, "kristalezko sabaia" deritzona; kontzeptu horrek emakumeek lanean mailaigoetzeko mugari egiten dio erreferentzia, eta zuzeneko lotura du emakumeek goi karguetan eta erabakiak hartzeko espazioetan duten ordezkari-tza urriarekin. Eta, bestalde, emakume migratuen kolektiboak "lurzoru itsaskorraren" kontzeptua jarri du mahai gainean. Kontzeptu horrek zerikusi handiagoa du aieratu ere ezin egiteko ideiarekin, gizarteak ezartzen dituen mugen ondorioz, ez baitzaie eremu pribatua, etxea eta zaintza lanak uzteko aukerarik ematen, profesionalki garatzeko.

Hau da, azterlanean parte hartu duten emakume batzuek adierazi dute muga handiak dituztela euren karrera profesionalean gora egiteko orduan, eta beste batzuek, berriz, nabarmendu dute zuzenean karrera profesional horri ekiteko orduan dutela muga hori.

## KALITATEZKO HEZKUNTZA

Kaltetutako taldeentzat eta kolektiboentzat garrantzi handiena duten GJHen artean, nabarmentzekoa da **4. GJHa (Kalitatezko hezkuntza)**: hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzea pertsona guztientzat.

Hezkuntza funtsezkoa da gainerako helburuak betetzeko. Bere xedeen artean, bereziki, 4.7. helburua azpimarratu behar da: ikasle guztiek garapen iraunkorra sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, hezkuntzaren bidez bultzatuta garapen iraunkorra eta bizi estilo iraunkorrak, giza eskubideak, genero berdintasuna, bakearen eta indarkeriarik gabeko kulturaren sustapena, munduko herritartasuna eta kultura aniztasunaren balorazioa eta kulturaren ekarpena garapen iraunkorrerako.

Kolektiboko edo taldeko pertsonen hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa jasotzeko aukera dutela uste duten galdetzean, adierazi dute, oro har, Euskadin hezkuntza arautu publikoa



eskura daitekeela derrigorrezko etapetan behintzat: haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan. Hala ere, **eskuragarri egotetik haratago dago fokua, zehazki, hezkuntza sistemaren kalitatean eta inklusio gaitasunean.**

Era berean, hezkuntza arautuaren goi mailako etapei buruz hitz egiten denean, unibertsitatearen kasuan bezala, sarbidea zailagoa dela ikusten da; izan ere, matrikulek gastu handiagoa dakarte, eta zenbait kasutan, bereziki landa inguruneetan bizi diren pertsonentzat, mugikortasun eta etxebizitza arazoa ere badakar unibertsitatean sartzeak. Hau da, uste dute zailtasun handiagoak daudela hezkuntza arautuaren goiko etapetan sartzeko orduan, batez ere egoera ekonomiko apalagoa duten pertsonen.

*“Zinez uste dut gure hezkuntza duina dela Euskadin, nahiko unibertsalizatua dela, arrazoizko kalitatea duela, baina, oro har, kalitatea eskasa dela iruditzen zait. Ez bakarrik jornalariarentzat, oro har, uste dut Euskadin, hezkuntzari dagokionez, jauzi bat egin behar dugula. Uste dut oraindik ere askotan eredu zaharrak erabiltzen ditugula hezteko, oso zaharkituak, eta gure gizarteak behar duen kalitate guztia ez dutenak”* (Auxtin Ortiz, ENDAA).

Esan bezala, hezkuntzari buruz hitz egitean, hezkuntza sistemaren inklusio gaitasunean gehiago sakonduko duten gaiak aztertu behar dira. Elkarrizketatutako pertsonen oztopoak aipatu dituzte, ikusezinak edo ikusezin eginakagian, ahulezia egoerekin eta, kasu batzuetan, gizarte bazterketa-egoerekin lotuak. Alde batetik, pertsonaren edo familia unitatearen egoera ekonomikoarekin zuzeneko lotura duten oztopoak identifikatu dira, elikadura okerragoa, eskolaz kanpoko jarduerak egiteko edo laguntza akademiko pribatua izateko aukera txikiagoa eta beste ekar baititzake.

Bestalde, elkarrizketatutako pertsonen estereotipoen eta diskriminazio enfoku diren gizarte taldeen errealitateak ikusarazteko beharra aipatu dute. Horretarako, ezinbestekoa da ikasgelatik lan egitea **metodologia antirrazista, kulturarteko eta feministen bidez**, eskoletan dauden aniztasunak balioesteko. Halatan, garrantzitsua da, halaber, belaunaldi berriek dibertsitate afektibo-sexualak, kulturalak, linguistikoak eta abar ezagutzeko aukera izatea. Ezinbestekoa da aukera guztiak ikusaraztea eta ezagutzea, dimentsio anitzeko ikuspegitik hautatu, errespetatu eta hausnartu ahal izateko.

Azkenik, esanguratsua da azterlanean parte hartu duten erakundeek aurrera eramandako sensibilizazio eta eraldatze ekintzen bidez egindako ekarpena. **Hezkuntza inklusiboa eta kalitatezkoa** sortzen laguntzen duten ekintzak, **balioetan eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza**: hezkuntza sistemak hezkuntza afektibo-sexualari eta kultura aniztasunari buruz dituen gabeziak lantzea edo feminismoetatik lan egitea, bai eta unibertsitate publikoan eta lanbide heziketan ikasleen baldintzak hobetzeko aliantzak sortzea ere. Horrez gain, ildo horretan lanean jarraitzeko etorkizuneko proposamenak ere azaldu dira: hezkuntza metodologietan hezkidetzaren ikuspegi zeharka txertatzea, haurrak jarrera bortitz, matxista eta arrazisten aurrean 0 tolerantziatik hezteko, ikasleek ikastetxeetako espazioetan aktiboki parte har dezaten bultzatzen jarraitzeko, ikasketa beken sistemaren berregituraketan eragiteko... Horrela islatzen da Euskadiko gizarte erakundeek izan duten, duten eta izango duten lana, garapen inklusiboa, ekitatiboa eta iraunkorra izaten laguntzeko.





# ENPLEGUA ETA ETXEBIZITZA: PREMIEI ERANTZUTEKO FUNTSEZKO FAKTOREAK

Enplegua eta etxebizitza elkarri lotutako bi kategoria dira, eta funtsezko faktore gisa planteatzen dira oinarritzko beharrak asetzeko eta bizi kalitatea hobetzeko, baita giza garapen iraunkorrarekin duten loturagatik ere.

Alde batetik, 2030 Agendako **8. GJH (Lan duina eta hazkunde ekonomikoa)** nabarmendu nahi dugu, hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta iraunkorra, enplegu osoa eta produktiboa eta pertsona guztientzako lan duina sustatzeari buruzkoa. Besteak beste, langabezia tasa murriztea eta lan baldintzak hobetzea du helburu. Bere xedeen artean daude, halaber, gazteen enplegurako mundu mailako estrategia, lan eskubideak babestea eta pertsona guztientzako lan ingurune segurua sustatzea (batez ere emakume migratuentzat eta enplegu prekarioak dituztenentzat). Bestalde, **11. GJH (Hiri eta komunitate iraunkorrak)** ere nabarmendu nahi dugu, hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta iraunkorrak lortzea. Izan ere, lehen xedean, etxebizitza eskuratzea aurreikusten du, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarritzko zerbitzu egokiak, seguruak eta eskuagarriak izango dituztela ziurtatzeko.

Azterlanean parte hartu duten taldeek eta kolektiboez planteatu dute beren beharrak asetzeko **ezinbesteko faktoreak** direla enplegua eta etxebizitza lortzea eta lan eta bizigarritasun baldintzen kalitatea. Hala ere, sentsazio orokorra kezka eta ziurgabetasuna da, geroago jorratuko dugun egungo pandemia egoerak larriagotu egin duena, neurri batean.

2008ko krisiaz geroztik Euskadin langabezia tasa pixkanaka murrizten joan bada ere, **sortutako lanpostuen lan baldintzen kalitatean dago fokua**. Horren harira, nabarmendu da lan baldintzen hobekuntza ez dela egoera ekonomikoan soilik oinarritu behar, baizik eta hainbat faktoretan, hala nola lan egonkortasunean edo familia kontziliazioa erraztean.

Etxebizitzaren kasuan, pertzepzio orokorra positiboa da etxebizitza publikoaz hitz egitean, baina etxebizitza pribatuak alokatzeko aukeraz hitz egin denean, aldatu egin da kontua; izan ere, zenbait kasutan **aurreiritziak eta/edo estereotipoak** aipatu dira, zailtasunak sortzen dituztenak horrelako etxebizitzak eskuratzeko orduan.

Enpleguari eta etxebizitzari begira dituen oztopo eta muga handienez hitz egin du kolektibo edo talde bakoitzak.

- Gazteek, gaur egun, hainbat zailtasun dituzte beren **bizitza proiektua** sortzeko orduan. Lan merkatuan sartzea eta, ondoren, emantzipazioa dira beren egungo erronka nagusiak. Haste-ko, lan mundura baldintza kaskarragoetan sartu beharra onartzen dute, baina esperientzia hartu ahal izango dute behintzat. Era berean, emantzipatzeko eta etxebizitza aurkitzeko zailtasunak zuzenean lotuta daude lan prekarietatearekin eta egoera ekonomikoarekin. Ondorioz, Euskal Autonomi Erkidegoan batez beste 30 urterekin emantzipatzen dira gazteak, EGKK



30 urte hartzen dituenean helduarora igarotzeko eta gazte izateari uzteko mugatzat. *“Asko hitz egiten den etorkizuna gara, baina oraina ere bagara”* (Maialen Olabe, EGK).

- **Jornalarientzat, enplegarritasuna funtsezko faktorea da beren egoera hobetzeko.** Ezinbestekotzat jotzen dute beren burua ondo antolatzea, beren lan baldintza orokorrak hobetzeko proposamenak aldarrikatzeko. Bestalde, lehen esan bezala, fokua ez dago soilik enpleguaren ahalmen ekonomikoan, baizik eta baldintzak hobetu egin behar dira, lanbidearen behin-behinekotasuna, esate baterako. Etxebizitzari dagokionez, Euskadin eta Euskaditik kanpo bizi diren jornalariak bereizten dira. Euskadin bizi direnek, nahiz eta hiri-landa arraila izan, oro har, etxebizitza bat eskura dezakete. Aldiz, atzerrian bizi direnek ahulezia egoera handiagoak jasan ditzakete, nekez orokortu daitezkeenak.
- **LGBT+ komunitatearen artean, berriz ere ñabardura bat dago haren barruko kolektiboen aniztasunari dagokionez.** LGB siglak direnean, hau da, sexu orientazioaz ari garenean, errazagoa izan daiteke lana edo etxebizitza eskuratzea. Aldiz, **transek\*** zailtasun handiagoa dute enplegarritasunari eta etxebizitza eskuratzeari dagokienez. Komunitateak badaki kolektibokoa izatea oztopo izan daitekeela etxebizitza bat alokairuan hartzeko, euren inguruan sor daitezkeen aurreiritziengatik eta estereotipoengatik.
- **Emakume ijitoek** lan merkatuan sartzeko **oztopo sistemikoez** hitz egin dute, haien kasuan identifikatu diren adierazleetan jaso direnak. *“Ez gara enplegarriak, sistemak hala ez izatea eragin duelako”* (Tamara Clavería, AMUGE). Aipatu dute batzuetan emakume ijitoek beren nor-tasuna itxuraldatu eta ezkutatu egin behar izan dutela enplegu bat lortzeko edo etxebizitza bat eskuratzeko, euren premiak ase ahal izateko. Adierazi dute historikoki ijitoei ukatu egin izan zaiela lanerako duten eskubidea, eta kalez kaleko salmentarako eta antzeko lanetarako baztertu izan direla beti.
- **Emakume migratuek,** atzeritarren legearen ondorioz, aurre egin behar dieten **oztopo legalak** nabarmendu dituzte, lege horrek zuzenean eragozten baitu enplegarritasuna. Araudi horren ondorioz, egoera irregularrean dauden pertsona migratuek ezkutuko enplegua dute irtenbide bakarra, eta oso egoera kaskarrak onartu behar izaten dituzte, oinarrizko elikadura eta etxebizitza premiei erantzun behar baitiete. Egoera irregularrean dauden emakume gehienak etxeko lanetan eta zaintza lanetan aritzen dira, eta sektore hori oso prekarioa da. Gainera, nabarmendu behar da emakume migratuek, kasu askotan, zailtasun handiagoa dutela lana eta bizitza pertsonala bateratzeko orduan, laguntza sarrerik ez baitute izaten. Horren aurrean, nabarmenezkoa da emakumeen gizarte mugimenduaren lana, iristen diren tokian hain beharrezkoa den laguntza sare hori sortzeko aliantzak eraikitzen laguntzen baitu. Era berean, etxebizitzaren kasuan, emakume migratuek hainbat egoera jarri dituzte mahai gainean. Alde batetik, zaila da diru sarrerak frogatzea, eta, beraz, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren arloan araututako programetan sartzeari. Baina, bestalde, jatorri jakin batzuetako kolektiboen diskriminazioa jasaten dute baita gela bat alokatzeko ere. Irregularitasun administratiboaren egoerak are larriago egiten du diskriminazio hori, baina, dokumentazioa behar bezala izanda ere, etxebizitza eskuratzea damigratuentzat oinarrizko egoerarik zailenetako bat.

Alde horretatik, gizarte mugimenduaren laguntza funtsezkoa da, batez ere, arlo horretan eskubi-deak urratzen diren egoeretan laguntzeko eta salatzeko.



# OSASUNA ETA DESBERDINTASUNAK: COVID-19 KRISIA ARRISKU FAKTORE ERANTSI GISA

**3. GJHak (Osasuna eta ongizatea)** bizitza osasuntsua bermatzea eta adin guztietan ongizatea sustatzea du helburu, hori funtsezkoa baita garapen iraunkorrerako. Garrantzitsutzat jotzen da, bereziki, osasunean eta ongizatean eragina izan dezaketen faktore sozialak, ekonomikoak eta kulturalak ikertzea. Gai horiei guztiei banaka nahiz testuinguruaren arabera heldu behar zaie, desberdintasunak aztertzerakoan eta haiei aurre egingo dieten politikak garatzerakoan. Horregatik, osasunari zuzenean edo zeharka eragiten dioten desberdintasun horietan jarriko dugu arreta kategoria honetan.

Alde batetik, hezkuntza sistemaren kasuan bezala, aipatu da beharrezkoa dela osasun sisteman ikuspegi interkulturalak, feministak eta inklusiboak sartzea; izan ere, ikusi dugun bezala, osasun sisteman ere eragina dute alderdi sozialek eta ekonomikoek. Arazo horiei aurre egiteko, garrantzitsua da osasun sistemak osagai kulturalak, sozialak eta ekonomikoak lantzea, pertsonen errealitateekin bat datozen diagnostikoak egiteko.

Ikuspegi feminista eta kulturartekoaz harago, osasun esparruetan aniztasunen ikuspegia txertatzeko beharra ere aipatu da, pertsonen beren errealitateetatik arreta eman ahal izateko, bereziki aniztasun afektibo-sexualari dagokionez.

## COVID-19K ERAGINDAKO KRISIA

---

Aipatutako guztiak COVID-19 pandemia baino lehen antzemandako beharrak islatzen ditu. Hala ere, 2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) COVID-19ren pandemia deklaratu zuen mundu osoan, eta horrek neurri murriztaile batzuk ekarri zituen, herritar guztiei eragin zietenak, **maila guztietako desberdintasunak** are gehiago **nabarmenduz**. Egoera horren aurrean, euskal gizarteak osasun krisian dago gaur egun, bai eta krisi sozial eta ekonomikoan ere.

Era batean edo bestean, **COVID-19k eragindako pandemiak agerian utzi du pertsona guztien zaurgarritasuna, eta, bereziki, aurretik egoera horretan zeudenena**. Izan ere, krisi honen ondorioek herritar guztiei eragiten diete, baina eragin handiagoa dutelehendik egoera ahulean zeuden gizarte taldeetan.

**Enplegarritasuna da krisi honek gehien kaltetu duen alderdietako bat**. Mugikortasun murrizketen eta funtsezkoak ez diren jarduera guztien itxieraren ondorioz, pertsona asko langabezia eta dirusarrerarik gabe geratu dira.

Txanponaren beste aldean, sektore batzuk ezin izan dira inoiz gelditu, funtsezko sektoretzat hartu baitira. Zehazki, krisi honek nekazaritzaren eta elikaduraren sektoreen balioa nabarmendu du, horiek funtsezkoak baitira. Hau da, hein batean bederen, krisiak balio izan du gizarteak lehen sektorean lan egiten dutenak balioesteko eta haiei beste modu batean begiratzeko, batez ere hurbileko tokiko ekoizleei.



Era berean, ikerketa honetan parte hartu duten erakundeek, mundu osoa gelditu den aldi berean gelditu beharrean, areagotu egin dute beren lana. Kasu askotan, oinarritzko beharrak asetzeko eskaria handitu egin da, hala nola elikadurarekin edo eten digitalarekin lotutako premiei erantzuteko, hezkuntza materialak eskuratzeko edo administrazio kudeaketak egiteko. Lanean jarraitze horrek, batez ere pandemiaren lehen hilabeteetan, birusa izateko arrisku handiagoa ekarri du, eta, ondorioz, zaurgarritasun handiagoa ere.

Azken batean, COVID-19k eragindako osasun, gizarte eta ekonomia krisiak agerian utzi ditu munduan lehendik zeuden desberdintasunak, eta, kasu askotan, areagotu ere egin ditu. Hala ere, esanguratsua da zenbait taldek egoera horri buelta ematen dion hausnarketa egin izatea, eta pentsatzea, jada identifikatuta genituen gaiak azkarrago aldatzeko balio izango duela horrek. Hau da, **desberdintasunen ebidentzia baliatzea, gizarteetan eraldaketa sortzeko.**

## GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK LORTZEKO ALIANZAK

**17. GJHak (Helburuak lortzeko aliantzak)** Garapen Iraunkorrerako Mundu Aliantza indartzeko behar diren inplementazio bitartekoak indartu nahi ditu. Azterlan hau egiteko eta ikertzeko prozesuan, horixe da helburu nagusietako bat, azterlanaren esparru proiektua bera parte hartu duten erakundeen aliantzatik sortu baita.

Oro har, positibotzat eta aberasgarritzat jo da aliantzak sortzea eta eragile desberdinekin sarean lan egitea, egoera heterogeneoan eta askotarikoan. Badira ñabardura batzuk, hala nola ondorio irmoak eta akordioak lortzeko zailtasuna helburu desberdinak dituzten taldeek osatutako aliantzetan, iritzi desberdinak egon baitaitezke, baina, aldi berean, horixe da potentzialtasuna: gai berari buruz baloratu eta gogoeta egitea, eragin eta jardutea, hainbat ikuspegitatik begiratuta.

*"Aliantzak indarra egiten du"* (Mari Mar Clavería, AMUGE).

Beste ñabardura bat da elkarrekin lan egiteko puntuak bilatzea, adostasunetara iritsiz, baina aliantzan dagoen eragile edo talde bakoitzaren nortasuna homogeneizatu gabe. Horixe da aliantzaren erronka nagusia.

Era berean, aliantzatik eta sareko lanetik lan egiteko, ezinbestekoa da pertsona guztiek **aktiboki parte hartzea**. Kasu honetan, giza eskubideei buruz hitz egitean, ezinbestekoa da eskubideak urratuta dituzten pertsonak eta taldeek ahotsa goratzea.

Azterlanean parte hartu duten pertsonak ondoko ondorio hauek atera dituzte: aliantzak horizontaltasun harremanetatik eta komunitatetik sortzea, espazio publikoetan parte hartzea sustatzea eta komunitateak sare sozialetan, politikoetan eta kulturaletan ordezkaritza handiagoa izan dezan bultzatzea, bi norabideko ikuspegitik, hau da, pertsonak eta gizarteak inplikaturik, gizartea eraldatu ahal izateko.



# 2030 AGENDA EZARTZEKO ERRONKAK, KALTETUTAKO TALDEEN IKUSPEGITIK

2030 Agenda bera ere norabide berean lan egiteko gida bezala ikusten da. **Orientazio tresna** bat, perfektua ez dena eta ikuspegi kritikotik heldu behar zaiona. Hain zuzen ere, garrantzi handia hartzen duen alderdi kritikoetako bat da txosten honetan ordezkatuta dauden kolektiboek edo taldeek **gehiago parte hartu** behar dutela GJHak prestatu, lortu eta jarraitzeko prozesuan. Hau da, Agenda aukera bat da, egoera ahulean dauden kolektiboan edo taldeen proposamenak txertatzeko gaitasuna ere baduen heinean.

Izan ere, ezinbestekotzat jotzen da interesa duten talde guztiek parte hartzea soluzio globalak eta tokikoak eraikitzen, eta, are gehiago, horien parte izatea eta helburuak lortzen laguntzea.

Hori dela eta, Agendaren erronka nagusietako bat da egungo **gizarte askotariko eta heterogeneoen begirada guztiak txertatzeko** gaitasuna izatea, bereziki, eskubideak urratuak dituzten komunitateen begiradak; hau da, "pertsonek guztiak erdigunean jartzea".

Pribilegioetatik pentsatua ez dagoen tresna baten beharra aldarrikatu da, eta pertsona "ez-pribilegiatuen" rola ikusle soilen paperera baztertuko ez duena. Emakume migratuen taldeak planteatu digu oso garrantzitsua dela etengabe berrikustea prozesuetan (eraikuntza, ezarpen eta jarraipen prozesuetan) sortzen diren pitzadurak, pertsona guztiok baldintza berdinetan ez egotea eragiten dutenak.

Ikerketan nabarmentzen den beste erronka handietako bat da Agendak **GJHak herritar arruntentzako errealitate bihurtzeko** duen gaitasuna. Batetik, herritar guztiek ezagutzea, eta, bestetik, pertsona guztientzako errealitate bihurtzea. Esan daiteke eremu profesional eta/edo akademiko jakin batzuetatik kanpo, oro har, ez dela gazteek, ijitoek eta abarrek ezagutzen duten agenda. Izan ere, elkarrizketatutako pertsona guztiak kezkatuta agertu dira Agenda eta GJHak eraldatzeko gaitasunari buruz, eta beldur dira alderdi teorikoenetan geratuko ote diren eta praktikan benetako aldaketarik ez ote den nabaritutako. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen da herritarrei zuzendutako kanpainak ikuspegi zehatza izatea kaltetutako taldeetatik.

Azkenik, hausnarketa bat sortu da Agendaren **"inor atzean ez uztea"** printzipioari dagokionez, hori ere erronka bat baita agendaren prozesuan begirada guztiak txertatzeko. Leloa bestetasunetik bultzatutako zerbait dela aipatu da, pertsona batzuk atzean eta, beraz, beste batzuk aurrean jarriz. Beren ustez, leloak izan beharko luke *"inork ez dezala ni gabe aurrera egin, edo inork ez dezala bere aldetik aurrera egin"* (Fancy Fonseca, Emakumeak Aniztasunean). Hau da, pertsona guztiek batera egin dezatela aurrera eta inor ez dadila bereiz eta bere aldetik joan. Horrek izan beharko luke printzipio gidaria.



# ONDORIO OROKORRAK

Gaur egungo gizarteak talde desberdinek eta heterogeneoek osatzen dituzte, eta ezaugarri eta aldarrikapen komunak dituzte: kulturalak, historikoak, belaunaldikoak, lanekoak, etab. Hala ere, gizarte talde bateko edo batzuetako kide den pertsona bakoitzak bere bizitza historia du, bere esperientziak eta bere errealitatea. Horregatik, **talde bateko kide izateagatik pertsonengan aurrez pentsatutako ideiek ez dute koherentziarik egungo errealitate sozialarekin.**

Ondorio horretara iristeko, beharrezkoa da taldeak eta kolektiboak ikuspegi interseksionaletik ulertzea, **kontuan hartuta askotariko identitateak daudela eta, gainera, elkarrengan eragiten dutela, desberdintasun egoera ugari eraginez.** Hau da, maila desberdinek (mikro, meso, makro eta kronoa) osatutako dinamika sozial zabal batetik ulertzen ditugu taldeak.

Era berean, aurrez pentsatutako ideiek **diskriminazio informal edo estrukturaleko egoerak eragin ditzakete, eta egoera horiek, aldi berean, gizarte desberdintasunen eta arrailen testuinguruan kokatzen dira** (aberastasunaren banaketan dagoen desberdintasuna, aukera desberdintasuna, baliabideak eskuratzeko desberdintasuna, genero arraila, eten digitala, energia desberdintasuna, dimentsio anitzeko pobrezia...). Testuinguru horrek guztiak eragiten du **ideia diskriminatzaile eta desberdintasun horien xede diren taldeetako pertsonen oinarrizko eskubideak urratzea eta talde kalte-tuez hitz egitea.**

Hain zuzen, azterlan honetan identifikatu ahal izan den bezala, talde kaltetuetaoak diren pertsonak behartuta daude beren nortasun kulturala edo afektibo-sexuala ez-kutatzerara, etxebizitza edo enplegua bezalako oinarrizko bitartekoak eskuratu ahal izateko.

Ezaugarri edo faktore zehatzetan sakonduz, ikusi dugu, interseksionalitate kontzeptua 80ko hamarkadan sortu bazen ere, orduan jada nabarmentzen baitzen jatorriaren eta generoaren elkarrekinza, gaur egun, **Euskadin kaltetutako taldeek ere diskriminazioaren gune nagusi gisa identifikatzen dituztela genero eta jatorri faktoreak.**

Uste badugu ere Euskadin azken urteotan indarra hartu dutela mugimendu feministek eta arrazismoaren aurkakoek, batez ere gizarte zibilaren eta asoziazionismoaren artean, **aukera berdintasunak bete gabeko erronka izaten jarraitzen du oraindik ere.** Genero aldeak, batez ere lan arloan eta zaintzen arloan, eta jatorriaren edo etniaren arabera diskriminazioak areagotzen ari dira, eta desberdintasun modu garrantzitsuenetako batzuk sortzen gizarte modernoetan.



Are gehiago, gaur egungo krisialdian, ezinbestekoa da desberdintasunei buruz hausnartzea eta aldaketak sortu behar direla pentsatzea. COVID-19k eragindako pandemiarekin, inoiz baino nabarmenago geratu da pertsona guztiok egon gaitzkeela ahulezia egoeren eraginpean, bai eta gizarte bazterkeriaren eraginpean ere. Hala ere, lehendik ere eskubideak urratuak zituzten pertsonak eta taldeak bereziki kaltetu dira eta neurri handiagoan pairatzen dituzte krisien ondorioak. **Hau da, COVID-19ren pandemiak planeta osoari eragin dio, baina ez pertsona guztiei indar eta gordintasun berdinarekin.**

Izan ere, Espainian eta, zehazki, Euskadin, 2008ko krisiak jada ahulezia egoera larrian utzi zituen pertsona asko, eta, pixkanaka egoera hobetzen ari zen arren, uste da gizarteko pertsona eta talde batzuk oraindik ez zirela aurreko krisitik suspertu, krisi berria hasi denean.

**COVID-19k eragindako pandemiak agerian utzi ditu lehendik ere bazeuden desberdintasun moduak, baina orain nabarmenago gelditu dira, eta, kasu batzuetan areagotu ere egin dira, eten digitala, esate baterako.** Kasu askotan, teknologiak salbazioa izan dira senitartekoeekin eta maite ditugunekin komunikatzen jarraitzeko, kulturarekin eta gure artista gogokoenekin konektatuta jarraitzeko, etab. Baina, zer gertatu da teknologia horiek erabili ezin izan dituzten pertsonekin? Inoiz baino ikusezinago bihurtu dira. Eta, gainera, eten digitalak agerian utzi ditu beste desberdintasun mota batzuk ere, eta zenbait esparruri eragin die, hala nola osasunari edo hezkuntzari (baliabiderik eza) eta administrazio publikoetarako sarbideari (sarbiderik eza), zerbitzu horiek guztiak etxetik egin baitira, metodologia digitalen bidez.

**Aurrekaririk gabeko krisi sanitario, sozial eta ekonomikoaz gain, ezin dugu ahaztu ingurumen krisiaren aurrean ere bagaudela gaur egun.** Era berean, planetaren nariadurak eta baliabideen gehiegizko ustiapenak ere ondorio are esanguratsuagoak ditu kaltetutako pertsonengan eta taldeengan, berriz ere handitu egin baita desberdintasunaren arraila, esplotatutako herrialdeetan bereziki, eta muturreko prekarietate egoerak eragiten baititu.

Horregatik, kontuan hartuta 2030 Agendaren ezaugarri nagusietako bat munduko leku guztietan desberdintasun egoerak aitortzea dela, ezinbestekotzat jotzen da herrialde guztiek parte hartzea, maila anitzeko eskalan, Agenda ezartzen eta haren segimendua egiten.

Zehazki, Euskaditik, kaltetutako bost talderen errealitateak aztertuta, **irmoki ondorioztatu dugu euskal gizartea osatzen duten aniztasunak barne hartuta heldu behar zaiela Agendako prozesuei, eta, bereziki, generoagatik, etniagatik, jatorriagatik, adinagatik eta abarregatik historian zehar eskubideak urratu zaizkien pertsonen eta taldeen ahotza emanaz.** Gainera, ezinbestekotzat jotzen dugu eragile tradizionalen eta ez-tradizionalen arteko aliantzatik lan egitea, barne hartuta administrazio publikoak maila desberdinetan, gizarte zibileko erakundeak, mundu akademikoa, sektore pribatua eta abar, baterako proposamenak eta lan ildoak elkartzeko.

Kolektibo edo talde bati dagozkion gaiak aldarrikatzeak ez ditu baztertzen beste talde batzuen proposamenak eta borrorak. Guztiok bizi gara desberdintasun eta diskriminazio egoerak sortzen dituen eta, beraz, oinarrizko eskubideak urratzen dituen sistema eta egitura beraren pean. Horregatik, **gure estrategia 17. GJHan kokatzen da,** aldarrikapenak batu daitezen aliantzak eta akordioak lortzeko.



Era berean, uste dugu **hezkuntza dela aurreiritziei eta diskriminazioei aurre egiteko dugun tresna handienetako bat, aniztasunak ikusaraziz eta haiei ahotsa emanez**. Hezkuntza bere adierarik zabalenean, eraldatzeko bokazioa duen hezkuntza, eskubideen ikuspegia duena, eta dituen maila desberdinetatik landuko dena: formala eta ez-formala.

Izan ere, gure ustez, **2030 Agenda modu eraginkor eta eraldatzailean ezartzeko, ezinbestekoa izango da Agenda hori giza eskubideekiko konpromiso orokorrearekin bat etortzea**. 2030 Agenda eta giza eskubideak elkarri lotuta daude eta elkar indartzen dute. Giza eskubideek izaera loteslea, orientazioa eta gainbegiratzeko eta kontuak emateko mekanismoak ematen dituzten bitartean, 2030 Agendak giza eskubideak gauzatzeko laguntzen du, eskubideak ikusaraziz eta giza eskubideen ikuspegi zatiezina nabarmenduz.

Hala ere, kontuan hartu behar dugu 2030 Agendaren formulazioak, GJHek, **inplementatzeko bitartekoek eta jarraipen mekanismoek ziurgabetasun handia sortzen dutela benetan eraldatzailea izan daitekeen eta bideragarria den jakiteko**. Eragile anitzeko foroaren jardunaldi birtualean parte hartu dutenek gizarteetan gaur egun ditugun erronken laburpen adierazgarritzat jo bazituzten ere GJHak, oraindik asko dago hobetzeko, aldatzeko eta eraldatzeko. Erronka horiek lehentasun eta erantzukizun partekatuen zerrenda gisa baloratu behar dira, bakoitzak bere tokitik zerbait egin baitezake.

Beraz, gure helburua 2030 Agenda eta GJHak errealitate bihurtzea eta "personak erdigunean jartzeta" izanik, **guztiok erritmo berean ibili behar dugula ondorioztatu dugu, ezin dugu "inor atzean" utzi, eta harreman horizontalak sustatu behar ditugu, paternalismorik gabe, eta gizarte zibilak politika publikoak eraikitzen aktiboki parte hartuz**; izan ere, kaltetutako taldeek modu horretan bakarrik uler dezakete Agenda desberdintasunen aurka borrokatzeko tresna eraginkor gisa.











2021eko maiatzaren 25ean egin zen **“Guztiok batera” Eragile Anitzeko I. Jardunaldi Birtuala: Hurbilketa bat 2030 Agendatik EAEko kolektibo kaltetuetara**. Jardunaldi horretan aukera izan genuen hainbat pertsona eta erakunderekin hitz egiteko eta hausnartzeko azterlanean zehar interese-koak izan diren gaiei buruz.

**BBK Kuna | Altekio | World Rural Forum | Asociación AMUGE | Gehitu Elkarte | Euskadiko Gazte-riaren Kontseilua EGK | Emakumeak Aniztasunean | UNICEF Comité País Vasco | Alokclub | IBILKI | GizARTE Sarea | Euskal Fondoa | Misoak – Misiones Diocesanas Vascas | Retinosis Retina Begisare | Amesten Elkarte | Talent Gune | Mujeres Tejiendo Red | Pello Sarasua**

Ekitaldi birtual horri esker, lan ildo nagusiak kontrastatu ahal izan ziren, bai eta Euskadin politika publikoetan aplika daitezkeen proposamen berriak birpentsatu ere, ekintzara pasatzeko proposamenak egiteaz gain.

## PROPOSAMEN POLITIKOAK

---

Gizarte zibilak asko du esateko eta egiteko bizi garen planeta eraldatzeko. Horregatik, ezinbestekoa da gizarte zibilak politika publikoetan eragitea, kalitatezkoak izan daitezen eta pertsona eta kolektibo guztiei bermeak eman diezazkieten.

Oro har, eragile anitzeko foroan antzeman zen politika publiko lorgarriak eta neurgarriak sortu behar zirela, diagnostiko onetatik abiatuta, pertsonak erdigunean jarrita, presentzia eta erantzukizun partekatuekin.

Hauk izan ziren azaldutako proposamen zehatz batzuk:

- Politika publikoek **egoeraren diagnostiko onak izan behar dituzte abiapuntu**. Kontuan hartu behar dituzte egungo errealitateak eta pertsonen benetako egoerak, koherentziaz jokatu ahal izateko.
- Ezinbestekoa da **parte hartu behar duten eragileei entzutea**. Politika publikoak ezin dira gizartetik bereizi, aniztasun osoan hartu behar dute kontuan gizartea. Horretarako, beharrezkoa da pertsona guztiak sartzea gizarte zibiletik, administrazio publikoetatik edo eremu pribatutik.
- Gure ustez, aniztasun sozialaren isla izan behar dute ordezkari politikoeak, **eta pertsonen identitate desberdinek lehen pertsonan egon beharko lukete ordezkatuta, eta erabakiak hartu beharko lituzkete**.
- Ikuspegi inklusiboak integrazioarena ordezkatu beharko luke, baita praktikan ere, **integrazteak gure zati bat desintegratzea baitakar**. Hala ere, badakigu pertsona asko atzean gera daitezkeela inklusio neurri zorrotzetan. Buruan duguna baino askoz ere anitzagoa da aniztasuna.
- Ekonomiaren politikak deszentralizatu egin behar dira, pertsonengan eta planetan arreta jar dezaten. Era berean, **politika publikoek ikuspegi unibertsala izan behar dute pertsona guztientzat**, ekitate printzipiotik hasita (aukera gutxien dituzten edo baztertuta dauden pertsonak).



- **Erreparazio politika publikoak** beharrezkoak dira kolektibo, herri eta komunitate batzuei eragin zaien kaltea konpontzeko.
- **Gizarte zibileko erakundeok zeregin garrantzitsua dugu** politika publikoak eraikitzen, elkarrizketa guneetan parte hartzen eta egoten, beste ahots batzuk ordezkatzeko eta ekartzen.

## EKINTZA PROPOSAMENAK – GIZARTEA INPLIKATZEA ERALDATZEKO

---

Elkarrizketan garrantzi handia hartu zuen beste kontu bat izan zen ekintzara pasatzeko eta gizarte osora iristeko beharra. Politika publikoak eraldatzeko, gizartea aldatu behar da, gizarteak eskatzen baititu behar horiek.

Era berean, garrantzitsutzat jo zen herritar guztiak ekintzetan inplikatzeko. Garrantzitsua iruditzen zaigu ohiko publikoetatik haratago iristea.

Zerk eraldatzen gaitu? Zerk irekiarazten dizkigu begiak?

Hona hemen sortu ziren ekintza proposamen zehatzetako batzuk:

- Agenda 2030en hizkuntza itzultzea, gizarte osoarentzat ulergarria izan dadin.
- Inpaktu soziala bilatzea, erakunde aliatuen eta sareko lanaren bidez.
- Hizkuntza komun baten bidez sentsibilizatzea eta komunikatzea.
- Palankak eragitea, ikuspegi intersektorialetik eta belaunaldi artekotik.
- Gehiago komunikatzea, komunikazio erakargarri eta eraginkorraren bidez.
- Giza eskubideen eta kultura eskubideen ikuspegia txertatzea.
- Pertsona erreferenteak izatea, mugitu eta estimulatuko gaituztenak.
- Musika, artea eta kultura, hausnarketa kritikoa sortzea eta eraldatzea gustatuko litzaigukeen gaietan komunikatzeko, iristeko eta sentsibilizatzeke. Adibide gisa, jaialdi baten bidez.
- ARTibismoa.
- Emozioaren dimentsioa sartzeko, gure gorputzean zerbait sor diezagun.
- Hezkuntza eta mugimendua.
- Espazio publikoak eraginkortasun handiagoz komunikatzeko erabiltzea.

Azken batean, horietatik dira egin zen lehen elkarrizketa gune aberats eta askotariko horretatik sortu ziren proposamenetako batzuk. Berrito helduko diogu gune horri, maila guztietan inplikazio kontzientea, kritikoa eta pertsonetikoa eta planetarekiko konprometitua sustatzeko.





Photo by Shane Rounce on Unsplash



# INTERESEKO ERREFERENTZIAK ETA DOKUMENTUAK

Amnistía Internacional España (2019). "La sentencia del Tribunal Supremo, una muestra más de que la salud universal no está garantizada". Hemendik hartua:

<https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/noticias/noticia/articulo/la-sentencia-del-tribunal-supremo-una-muestra-mas-de-que-la-salud-universal-no-esta-garantizada/>

Barrére, M.A. y Morondo, D. (2011). Subordinación y discriminación interseccional: elementos para una teoría del derechos antidiscriminatorio. *Anales de la Cátedra Francisco Suarez*, 45, 15-42.

Bronfenbrenner, U. (1987). La ecología del desarrollo humano. Bartzelona: Ediciones Paidós.

<http://psicopedagogosrioiv.com.ar/wordpress%20colegio/wp-content/uploads/2017/07/la-ecologia-del-desarrollo-humano-bronfenbrenner-copia.pdf>

Busso, G. (2002). POBREZA, EXCLUSIÓN Y VULNERABILIDAD SOCIAL. Usos, limitaciones y potencialidades para el diseño de políticas de desarrollo y de población. Hemendik hartua: [https://www.academia.edu/3887686/POBREZA\\_EXCLUSI%C3%93N\\_Y\\_VULNERABILIDAD\\_SOCIAL\\_Usos\\_limitaciones\\_y\\_potencialidades\\_para\\_el\\_dise%C3%B1o\\_de\\_pol%C3%ADticas\\_de\\_desarrollo\\_y\\_de\\_poblaci%C3%B3n](https://www.academia.edu/3887686/POBREZA_EXCLUSI%C3%93N_Y_VULNERABILIDAD_SOCIAL_Usos_limitaciones_y_potencialidades_para_el_dise%C3%B1o_de_pol%C3%ADticas_de_desarrollo_y_de_poblaci%C3%B3n)

CIBERESP (2016). Migration and Health in Spain. Hemendik hartua:

[https://www.ciberesp.es/media/658784/policy\\_brief-2.pdf](https://www.ciberesp.es/media/658784/policy_brief-2.pdf)

De la Hera, M.E. (2017). La voz de las personas en situación de vulnerabilidad en el diseño de las políticas sociales en Euskadi. La experiencia de EAPN Euskadi. Hemendik hartua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6218875>

Federico Mayor Zaragoza (2011). Interacción entre la humanidad creadora y el entorno ecológico. Hemendik hartua:

[http://www.fgcsc.es/lychnos/es\\_es/tribuna/interaccion\\_entre\\_humanidad\\_y\\_entorno](http://www.fgcsc.es/lychnos/es_es/tribuna/interaccion_entre_humanidad_y_entorno)

FELGTB (2019). Delitos de odio. Hemendik hartua:

[https://felgtb.org/wp-content/uploads/2020/06/INFORME\\_DELITOSDEODIO2019.pdf](https://felgtb.org/wp-content/uploads/2020/06/INFORME_DELITOSDEODIO2019.pdf)

Fundación Foessa (2019). Informe sobre exclusión y desarrollo social en el País Vasco. Hemendik hartua: <https://caritas-web.s3.amazonaws.com/main-files/uploads/sites/16/2019/11/PAIS-VASCO-VIII-Informe-FOESSA.pdf>

Futuro en Común (2019). Elementos clave para un desarrollo transformador de la Agenda 2030. Hemendik hartua:

[https://futuroencomun.net/wp-content/uploads/2019/04/clavesagenda2030\\_fec.pdf](https://futuroencomun.net/wp-content/uploads/2019/04/clavesagenda2030_fec.pdf)



Futuro en Común (2018). Una Agenda 2030 transformadora para las personas y el planeta. Informe desde la Sociedad Civil. Hemendik hartua: [https://futuroencomun.net/wp-content/uploads/2018/10/informe\\_desde\\_la\\_sociedad\\_civil\\_final.pdf](https://futuroencomun.net/wp-content/uploads/2018/10/informe_desde_la_sociedad_civil_final.pdf)

García, Z. (2020). Guía didáctica: derechos de la comunidad LGTBI+ mes a mes. UNESCO Etxea. Hemendik hartua: <http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/LGTBIguia.pdf>

Eusko Jaurlaritzak (2021). 2030 Agendaren lehentasunen euskal programa. Hemendik hartua: [https://bideoak2.euskadi.eus/2021/03/09/news\\_67372/CAST\\_Programa\\_prioridades.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2021/03/09/news_67372/CAST_Programa_prioridades.pdf)

Eusko Jaurlaritzak (2015). Euskadiko oinarritzko osasun eremuetan bizi-itxaropenaren desberdintasunak. Hemendik hartua: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_departamento/es\\_def/adjuntos/osagin/ot2015\\_1.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_departamento/es_def/adjuntos/osagin/ot2015_1.pdf)

Ikuspegi (2020). Análisis de la encuesta sobre percepciones y actitudes en torno a la discriminación en Euskadi. Hemendik hartua: <https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/2020discriminacionCAEcas.pdf>

Ikuspegi (2020). Índice sintético de inclusión e integración: un instrumento para el diseño de políticas públicas. Hemendik hartua: <https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/BI3cas.pdf>

Martínez-Palacios, J. (2017). Exclusión, profundización democrática e interseccionalidad. *Revista de Investigaciones Feministas*, 8(1), 53-71.

Nazio Batuak (2015). Garapen Jasangarrirako Agenda. Hemendik hartua: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/development-agenda/>

Nazio Batuak (1948). Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala. Hemendik hartua: <https://www.un.org/es/universal-declaration-human-rights/>

ONU Mujeres (2018). Hacer las promesas realidad: La igualdad de género en la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible. Hemendik hartua: <https://www.unwomen.org/-/media/headquarters/attachments/sections/library/publications/2018/sdg-report-gender-equality-in-the-2030-agenda-for-sustainable-development-2018-es.pdf?la=es&vs=834>

ONU Mujeres (2014). Declaración y Plataforma de Acción de Beijing. Hemendik hartua: [https://www.unwomen.org/-/media/headquarters/attachments/sections/csw/bpa\\_s\\_final\\_web.pdf?la=es&vs=755](https://www.unwomen.org/-/media/headquarters/attachments/sections/csw/bpa_s_final_web.pdf?la=es&vs=755)

Oswald, U. (2020). La discriminación aumenta la vulnerabilidad social y limita la resiliencia durante un desastre. *Patrimonio: Economía cultural y educación para la paz*, 2(18), 46-84.

Red Española del Pacto Mundial (2020). Los efectos de la COVID-19 en los Objetivos de Desarrollo Sostenible. Hemendik hartua: <https://www.pactomundial.org/2020/04/los-efectos-de-la-covid-19-en-los-objetivos-de-desarrollo-sostenible/>

Red Española del Pacto Mundial (2019). Las ONG ante los Objetivos de Desarrollo Sostenible. Hemendik hartua: <https://www.pactomundial.org/wp-content/uploads/2019/05/Las-ONG-ante-los-Objetivos-de-Desarrollo-Sostenible.pdf>

REDS (2020). Los ODS en 100 ciudades españolas. Hemendik hartua: <https://reds-sdsn.es/informe-ods-ciudades-2020>





Sareen Sarea (2020). Sareen Sarea ante el impacto del Covid-19 en el Tercer Sector Social de Euskadi. Hemendik hartua: [https://www.sareensarea.eus/images/documentos/DocumentacionSareenSarea/ESTRATEGIA\\_TSSE\\_COVID-19\\_cas.pdf](https://www.sareensarea.eus/images/documentos/DocumentacionSareenSarea/ESTRATEGIA_TSSE_COVID-19_cas.pdf)

UNESCO ETXEA (2019). Derechos humanos y Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible. Hemendik hartua: [http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/dossier\\_DDHH\\_agenda2030.pdf](http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/dossier_DDHH_agenda2030.pdf)

UNESCO ETXEA (2017). Transformar nuestro mundo, ¿realidad o ficción? Reflexiones sobre la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible. Hemendik hartua: [http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/transformar\\_nuestro\\_mundo.pdf](http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/transformar_nuestro_mundo.pdf)

## NOREN ARDURA DA ESKUBIDE HORIEK ERREALITATE BIHURTZEA?-N AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

---

Amnesty International. Empresas. Ikusi: <https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/temas/empresas-y-derechos-humanos/>

NNBB, 2015. Estudio exhaustivo de la situación de los derechos humanos de los romaníes en todo el mundo, prestando especial atención al fenómeno del antigitanismo. Eskuragarri hurrengo esteka honetan: <https://undocs.org/es/A/HRC/29/24>

NNBB – Batzar Nagusia, 2019. Dimensiones de género de los Principios Rectores sobre las Empresas y los Derechos Humanos. Eskuragarri hurrengo esteka honetan: <https://undocs.org/es/A/HRC/41/43>

OHCHR, 2006. Preguntas frecuentes sobre el enfoque de derechos humanos en la cooperación al desarrollo. Eskuragarri ondorengo esteka honetan: <https://www.ohchr.org/Documents/Publications/FAQsp.pdf>

OHCHR, 2009. Preguntas frecuentes sobre los Derechos Económicos, Sociales y Culturales. Eskuragarri ondorengo esteka honetan: <https://www.ohchr.org/Documents/Issues/ESCR/FAQ%20on%20ESCR-sp.pdf>

OHCHR, 2011. Principios Rectores sobre las Empresas y Derechos Humanos. Eskuragarri hurrengo esteka honetan: [https://www.ohchr.org/Documents/Publications/GuidingPrinciplesBusinessHR\\_SP.pdf](https://www.ohchr.org/Documents/Publications/GuidingPrinciplesBusinessHR_SP.pdf)



I. ERANSKINA



# ELKARRIZKETEN GIDOIA

- 1.** Zure ustez, zer zeregin dute gazteek / herriijitoak / emakume migratzaileek / LGTBI+kolektiboak / nekazariak garapen iraunkorrerako 2030 Agendan? Zure ustez, Agendak kolektiboa / taldea kontuan hartu du? Zeintzuk dira GIH esanguratsuenak kolektibo edo taldearentzat?
- 2.** Zure kolektiboak / taldeak, zer harreman du ingurumenarekin? Zure ustez, zeintzuk dira ingurumenari lotutako erronka nagusiak? Zure ustez, nola egin diezaike ekarpena zure kolektiboak / taldeak iraunkortasun ekologikoari?
- 3.** Baliabideak izatea. Zure ustez, kolektiboak baliabide publikoak eskuratzeko duen aukera antzekoa edo ezberdina da "batezbestekoarekin" alderatuta?
- 4.** Gazteen / herri ijitoaren / emakume migratzaileen / LGTBI+ kolektiboaren / nekazarien kasuan, zer iruditzen zaizu beraien enplegarritasuna? Zure ustez, zenbat eragiten du lanaren alderdiak kolektiboko / taldeko pertsonen garapenean? Zure ustez, zerk emango lituzke tresna edo erraztasunak enplegarritasuna hobetzeko?
- 5.** Etxebizitza gune seguru gisa ulertuta, bakea eta duintasuna ematen duena, zure ustez, gazteek / herri ijitoak / emakume migratzaileek / LGTBI+ kolektiboak / nekazariak ba al dute espazio hori? Ezezkoa bada, nola hobetuko zenuke egoera hori?
- 6.** Generoen arteko desparekotasuna espazio eta gizarteko talde guztietan dago. Gazteen / herri ijitoaren / emakume migratzaileen / LGTBI+ kolektiboaren / nekazarien kasuan, generoen arteko desparekotasunari dagokionez, ba al dago ezaugarri berezirik? Erakundean berdintasuna lantzen baduzue, proiektu horiei buruz hitz egin dezakezu.
- 7.** Gazteak / herri ijitoa / emakume migratzaileak / LGTBI+ kolektiboa / nekazariak, oro har, zure ustez, kalitatezko hezkuntza inklusibo eta parekidera heldu daitezke? Ezezkoa bada, nola hobetuko zenuke egoera hori?
- 8.** Nola eragin die COVID-19k sortutako pandemiak gazteei / herri ijitoari / emakume migratzaileei / LGTBI+ kolektiboari / nekazariei? Nola ikusten duzue etorkizunean?
- 9.** Intersektionalitatea, diskriminazio anitz barne hartzen dituen kontzeptua da. Zure ustez, hori badago kolektibo edo taldean? Zein motatakoa? Aipatuko al zeniguke diskriminazio anitzeko kasu zehatzik? Zer egin dezakegu egoera horiek hausteko (talde edo kolektibokoak ez gare-nok)?
- 10.** Zerk ordezkutzen du zuen kolektibo edo taldea bititza sozialean, kulturean eta politikoa? Parte hartu al duzue parte-hartze / herri-galdeketa prozesuren batean kolektibo / taldearen eskubideak aldarrikatzeko? Zer iruditzen zaizkizu espazio horiek? Zeintzuk dira eskaera nagusiak?
- 11.** Zure kolektiboarentzat, zer esan nahi du 2030 Agendako "inor atzean ez uzteko" printzipioak?
- 12.** Azken atal honetan, kontaiguzu zure ustez zein positiboak diren eskubideak urratuta dituzten taldeen / kolektiboaren / erakundearen arteko aliantzak, eta Euskadiko beste gizarte-mugimendu batzuekin artikulatuta bazaudete, sakondu horretan. Eta, Euskaditik kanporantz begiratuz, ba al dago elkarrekiko loturarik mundu mailako mugimenduekin / egoerekin? Zeintzuk?




# II. ERANSKINA



# BIZITZA-HISTORIOEN GIDOIA

- 1. Aurkezpena:** *Nor zara, zer egiten duzu gehienbat zure denboran...*
- 2. Bizitzako garai ezberdinak** deskribatu, orokorrean eta labor - haurtzarora, nerabezarora, gaztarora, adin nagusia...
- 3. Bizitzako erronkak:** Zein erronka handiri egin behar izan diozu aurre bizitzan zehar emakume ijito / emakume migratzaile / gazte / jornalari gisa?
  - Zure ustez, enplegarritasuna erronka bat da emakume ijito / emakume migratzaile / gazte / jornalari batentzat?
  - Zure ustez, baliabide publikoak izatea erronka bat da emakume ijito / emakume migratzaile / gazte / jornalari batentzat?
  - Zure ustez, etxebizitza duina lortzea erronka bat da emakume ijito / emakume migratzaile / gazte / jornalari batentzat?
  - Zure ustez, kalitatezko hezkuntza jasotzea erronka bat da emakume ijito / emakume migratzaile / gazte / jornalari batentzat?
  - Zure ustez, generoen arteko berdintasuna erronka bat da emakume ijito / emakume migratzaile / gazte / jornalari batentzat?
- 4.** Kontatuko al diguzu nola eragin duen **COVID-19**aren pandemiak zure bizitza pertsonalean eta profesionalean?
- 5. Intersektional** terminoak erreferentzia egiten dio diskriminazio anitzak jasateari; arrazagatik, generoagatik, adinagatik... Bizi izan al duzu horrelako egoerarik?
- 6.** Zer harreman izan dezake emakume ijito / emakume migratzaile / gazte / jornalari batek **ingurumenarekin**? Ezagutzen al duzu Garapen Iraunkorrerako **2030 Agenda**?
- 7.** Gure ustez, gizarte zibila funtsezkoa da edo izan beharko litzateke erabaki politiko eta sozialetan, zuk zer eskatuko zenuke emakume ijito / emakume migratzaile / gazte / jornalari gisa? Zer iruditzen zaizu **aliantzak** sortzea gure ahotsak entzun ditzaten? Inoiz egin al duzu sarean lan aldarrikapenen bat entzun dezaten?
- 8. Etorkizun alternatiboak:** Bi etorkizunetan pentsatu beharko bazenu, bata positiboa eta bestea negatiboa, nolakoak izango liriateke?
- 9.** Aipatu beste alderdi batzuk, garrantzitsuak iruditzen zaizkizunak eta ez direnak atera.





UNESCO ETXEA

CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO  
EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA